# UDAL AURREKONTUAK 2026

AURKIBIDEA


1. **PROZEDURAZKO ALDERDIAK** 2
 1.1. AURREKONTUEI, KONTABILITATEARI ETA ZERGEI BURUZKO INFORMAZIOA 2
 1.2. TOKI-ERAKUNDEEK EMANDAKO ZERBITZUEN BENETAKO KOSTUA KALKULATZEA (BERRIA) 2
 1.3. AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-KUDEAKETA (GOGORARAZPENA) 3
  1.3.1. GASTU ESPEDIENTEAK AURRETIAZ IZAPIDETZEA 3
  1.3.2. AURREKONTU ALDAKETEN FINANTZAKETA ITURRIA ALDATZEA 3
 1.4. AURREKONTUEN INGURUKO ALDAKETAK INDARREAN JARTZEA 3
 1.5. HONDAMENDI PUBLIKOAREN KASUETAN ERE KREDITU-TRANSFERENTZIEN AURREKONTU-ALDAKETAK IZAPIDETU AHAL IZATEA 3
 1.6. BARNE KONTROL MUGATUKO ARAUBIDEAREN ERREGULAZIOA 3
 1.7. TOKIKO OGASUNARI ZOR ZAIZKION KOPURUEI APLIKATU BEHARREKO INTERES-TASA 3
 1.8. TOKI TRIBUTUETAN SALBUESPENAK ETA HOBARIAK KONPENTSATZEKO PROZEDURA 4
 1.9. KONTSUMO-PREZIOEN INDIZEA (2025) 4

2. **TOKI TRIBUTUEI BURUZKO ARAUDIA** 4
 2.1. FORU OGASUNAREKIN IZENPETUTAKO HITZARMENA ZERGEI BURUZKO INFORMAZIOA TRUKATZEKO 4
 2.2. KATASTROKO INFORMAZIOA ETA BALORAZIO TXOSTENAK 4
 2.3. LURRAREN GAINEKO KONTRIBUZIOA 5
 2.4. EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA (EJZ) 5
 2.5. ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA 5
 2.6. GAINBALIOAREN GAINEKO ZERGA 6
  2.6.1. ZERGAPETURIK EGOTEA: ZERGAPETURIK EGOTEAREN ADIERAZPENA 6
 2.7. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA (EIOZ) 7
 2.8. ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGA 8
 2.9. ZORU, ZORUPE ETA HEGALKINEAN EGINDAKO APROBETXAMENDUARI DAGOKION % 1,5EKO TASA 8
 2.10. GOI-TENTSIOKO SAREEN JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDUAREN GAINEKO TASA 8
 2.11. SANEAMENDUKO KANONA 9

3. **TOKI OGASUNEK NAFARROAKO TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO FUNTSA** 9
 3.1. TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO FUNTSAREN ARAUBIDEA 9
 3.2. 2026KO TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA 9
  3.2.1. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN ZUZKIDURA 9
  3.2.2. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA TOKI-ERAKUNDE BAKOITZARI NOLA BANATZEN ZAION 9
  3.2.3. BERME-SISTEMA 10
  3.2.4. BALORAZIO TXOSTENAK GAURKOTZEA 11
  3.2.5. FUNTSAREN ATXIKIPENA AURREKONTUETAKO ETA KONTABILITATEKO LIKIDAZIOEN INFORMAZIOA EZ BIDALTZEAGATIK 11
  3.2.6. EJZREN SALBUESPENA KONPENTSATZEKO ZUZKIDURA 11
  3.2.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA OROKORRA ETA BESTELAKO LAGUNTZAK TOKI-ERAKUNDEEI BANATZEKO MODUA 11
  3.2.8. KAPITAL TRANSFERENTZIEN FUNTSA (TOKI INBERTSIOEN PLANA) 11
  3.2.9. INBERTSIO PROGRAMAK 12
  3.2.10. TOKI PROGRAMAZIOA 12
  3.2.11. TOKI PROGRAMAZIOKO INBERTSIOAK SARTZEKO, HAUTATZEKO ETA LEHENESTEKO PROZEDURA 12
  3.2.12. EKARPEN EKONOMIKOAREN ORDAINKETA 13
  3.2.13. DETERMINAZIO LIBREKO PROGRAMA 13

4. **TRANSFERENTZIEN EDO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAK** 14
 4.1. IZAERA FINALISTA DUTEN FORU GOBERNUKO DIRULAGUNTZAK 14
 4.2. TOKI-ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA EUROPAKO FUNTSETAN 14

5. **TOKI-ERAKUNDEEN ZORPETZEARI JARRITAKO MUGAK** 14

6. **AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA** 15
 6.1. AURREKONTUAREN EGONKORTASUNARI ETA FINANTZAREN JASANGARRITASUNARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA APLIKATZEA 15
 6.2. AURREKONTU EGONKORTASUNA BETETZEARI BURUZKO INFORMAZIOA MINISTERIOARI EMATEKO BETEBEHARRA 16

7. **NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOEN ZERBITZUKO LANGILEEI DAGOZKIEN NEURRIAK 2026KO EKITALDIRAKO** 17
 7.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN EGUNERAKETA 17
 7.2. LANGILE PASIBOAK 17
 7.3. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIAK ETA -TASAK 17
 7.4. GUTXIENEKO SOLDATA ETA ONDORIO ASKOTARAKO ERRENTA-ADIERAZLE PUBLIKOA 18

**ERANSKINA: 2026KO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN BARRUAN TOKI-ERAKUNDEEI DAGOZKIEN DIRULAGUNTZEN AURREKONTU-LERROAK** 19

2026ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea onesteko zain egon arren, honako informazio txosten honek zenbait legek dakartzaten berritasunak biltzen ditu. Honakoak dira aipatu lege horiek: 16/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, 2026ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa; 17/2025 Foru Legea, abenduaren 22koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzen dituena; 1/2026 Foru Legea, otsailaren 13koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena; eta 9/2026 Foru Dekretua, otsailaren 11koa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako toki entitateek ematen dituzten zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko betebeharra eta informazioa emateko epeak. Txostenean, bestelako erabakiek eta neurriek dituzten ondorioak ere jaso dira. Horrenbestez, arautu gabe dauden zenbait alderdi daudela kontuan hartuta, toki-erakundeei eragiten dieten toki ogasunen alorrean izandako berritasunak, aipatu legeek arautzen dituztenak, aurkezten dira txosten honetan.

# 1. PROZEDURAZKO ALDERDIAK

## 1.1. AURREKONTUEI, KONTABILITATEARI ETA ZERGEI BURUZKO INFORMAZIOA

Ekitaldiaren hasieran aurrekontu berriak indarrean ez badaude, automatikoki aurreko aurrekontuak luzatutzat joko dira, dagokien sailkapenarekin batera. Aurrekontuak luzatzeko ebazpena Toki Administrazioaren Departamentuari igorri beharko zaio luzapena onetsi eta hamabost eguneko epean eta lehendakariak edota Osoko bilkurak ebazpenari goranzko doikuntzak egin ahalko dizkio. Errepikatzen diren gastuak soilik luzatu ahalko dira, hots, ekitaldian amaitu behar ez direnak. Oro har, inbertsio-gastuak ezin dira luzatu, baina aurrekontu--kredituak aztertu behar dira, benetan luzatzen ahal direnak zeintzuk diren zehazteko. Gastu ez-errepikakorrak ezabatzen badira, aurrekontuan sartutako finantzaketa ezabatu beharko da. Aurrekontu berria onetsi ondoren, bertan aurrekontu luzatuaren barruan egindako eragiketak sartu beharko dira.

Aurrekontua, beste behin ere, aurrekontu-egonkortasunaren arau-fiskaletara doitu beharko da, defizita eduki gabe eta gastu-muga betez; hots, aurrekontuaren gastu konputagarriak, behin betikoa edo luzatua izan, ezingo du gainditu aurreko ekitaldiko likidazio zehatzaren edo estimatuaren gastu konputagarriaren % 3,5. Aurrekontuan gastu-araua betetzea ez dago Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezartzen dituen informazio-betebeharren barruan. Hala ere, kontuan izan behar da aurrekontuan gastu-araua ez bada betetzen, litekeena dela likidazioan ere ez betetzea baina likidazioan gastu-araua betetzea bai badela legeak ezartzen duen bete beharretako bat eta horren berri eman behar da gainera. Hori dela eta, gastu--araua betetzen den aztertzea komeni da eta adierazi behar da gastu-araua ez betetzeko arriskua egonez gero, aurrekontua gauzatzen den bitartean neurriak hartu beharko direla.

Toki-erakundearen eta bertako erakunde autonomoen likidazioa udalbatzako lehendakariak egin behar du **martxoaren 31 baino lehen**. Eta Toki Administrazioko Departamentuari igorri behar zaio hamabost egun baliodunekoepean. Halaber, **Kontu Orokorra apirilaren 30a baino lehen** eratu behar da ekainaren 1a baino lehen Kontuen Batzorde Bereziari bidaltzeko (Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 242.1. artikulua). Osoko bilkurak onartutako Kontu Orokorra Nafarroako Gobernuari bidaliko zaio, onartu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan.

**2026an epe luzerako zorpetze-eragiketak hitzartzea** aurreikusten duten erakundeek, araudian aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte, baimena eskatu beharko diote Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamentuari, baldin eta zor biziak, hitzartuko denak barne, aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten % 75 gainditzen badu. Baimena aurrezki garbiaren eta finantza-iraunkortasunaren mugak betetzearen arabera emango da, **2025eko aurrekontuen likidazioa** oinarritzat harturik. Beraz, baimena eskatzeko unean betekizun horien erakusle den dokumentua aurkeztu beharko da, baita araudian ezarritako epemuga baino lehen ere.

## 1.2. TOKI-ERAKUNDEEK EMANDAKO ZERBITZUEN BENETAKO KOSTUA KALKULATZEA (BERRIA)

Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeari gehitutako 116 ter artikuluan xedatutakoari jarraiki: Toki-erakunde guztiek, urte bakoitzeko azaroaren 1a baino lehen, eskaintzen dituzten zerbitzuen benetako kostua kalkulatuko dute aurrekontu orokorraren likidazioan jasotako datuak oinarritzat hartuta, eta hala badagokio, atxikitako toki-erakundeek edo menpeko toki-erakundeek onartutako urteko kontuak kontuan hartuta, betiere azken ekitaldiari dagozkionak.

Bestalde, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Jasangarritasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen bigarren xedapen gehigarriak honakoa ezartzen du: toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 116 ter artikuluan xedatutakoari jarraiki, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako toki-erakundeek eskainitako zerbitzuen benetako

kostua kalkulatzeko irizpideak garatuko ditu, eta kostu horien berri izango du.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 11ko 9/2026 Foru Dekretua onetsi da zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako toki-erakundeek ematen dituzten zerbitzuen benetako kostua kalkulatzeko betebeharra eta informazioa emateko epeak. Horrela bada, aipatu dekretuak xedatutakoarekin bat, Nafarroako toki-erakundeek kalkulatu egin beharko dute ematen dituzten zerbitzu guztien benetako kostua (zuzenean ematen dituztenena zein lotutako edo mendeko entitate eta erakundeen bidez ematen dituztenena, atxikitako partzuergoena barne) eta horren berri eman beharko dute. Atxikitako partzuergoen kasuan, partzuergoek beraiek emango dute ematen dituzten zerbitzuen berri.

Lehenbiziko informazio igorpena, 2026ko ekitaldiari buruzkoa izango da eta 2027ko azaroaren 1a baino lehen egin behar da. Horretarako, behar diren sistema informatikoak garatu dira eta Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak gida bat eta formakuntzak ere egin ditu kalkulua egin eta informazioa emateko.

## 1.3. AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-KUDEAKETA (GOGORARAZPENA)

### 1.3.1. GASTU ESPEDIENTEAK AURRETIAZ IZAPIDETZEA

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 210 bis artikuluak gastu espedienteak aurretiaz izapidetzeko aukera arautzen du. Horren arabera, toki-erakundeak zilegi izanen du gastu espedienteen tramitazioari hasiera ematea kasuko aurrekontu kreditua izan aurretik, dela ekitaldi berean, dela gastu horien egozpena eginen zaion aurrekontuari dagokionaren aurreko ekitaldian. Espedientearen hasierari nahitaez erantsi beharko zaio kontu-hartzailetzaren txosten bat, zeinean berariaz jasoko baita gastua garaiz aurrekoa dela eta lotuta dagoela kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintza etengarriari. Dagokion espedientearen izapideetan berariaz ohartarazi beharko da baldintza hori, hau da, kontratazio-izapideetan, dirulaguntzen deialdietan edo bestelakoetan.

### 1.3.2. AURREKONTU ALDAKETEN FINANTZAKETA ITURRIA ALDATZEA

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeari jarraiki, Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 213.1 artikuluak ezartzen dituen aparteko kredituak eta kreditu-osagarriak finantzatzeko iturriez gain, aurreikuspenen arabera **ekitaldian jasoko diren diru-sarrera berriekin** ere finantzatzen ahalko dira aparteko kredituak eta kreditu-gehigarriak, diru-sarrera horiek gauzatu ez badira ere, baina etorkizunean bilduko direla jasota badago.

213. artikuluko 4. puntuaren eta 219. artikuluko 6. puntuaren arabera, salbuespen gisa, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onesten den unera arte **aurreko ekitaldian erabili gabeko baliabideekin** finantzatzen ahalko dira gastu berriei edo handiagoei erantzuteko behar diren aldaketak bai eta kreditu gehikuntzak ere, azken hauek aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onetsi arte iragaten den denbora epean sartzen ahalko direlarik. Nahitaezkoa izanen da kontu-hartzailetzak txostena egitea finantzaketa benetan erabilgarri dagoen egiaztatzeko.

## 1.4. AURREKONTUEN INGURUKO ALDAKETAK INDARREAN JARTZEA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 214.2 eta 216 artikuluen arabera, **aurrekontuaren exekuzio oinarrietan hala ezarrita dagoenean**, aparteko kredituaren, kreditu-gehigarriaren edo kreditu-transferentzien aurrekontu-aldaketak indarrean jarriko dira erabakia behin betikoa denean. Eta hala izango da hasierako erabakia hamabost egunez jendaurrean jarri eta epe hori iragan ondoren erreklamaziorik edo alegaziorik egon ez denean. Exekuzio oinarrietan berariazko aurreikuspenik ez badago, tramitazioak aurrekontuen kasuan bete beharrekoak diren izapide eta betebehar berberak bete beharko ditu. Prozedura hori ez da aplikatuko aurrekontua onesteko.

## 1.5. HONDAMENDI PUBLIKOAREN KASUETAN ERE KREDITU-TRANSFERENTZIEN AURREKONTU-ALDAKETAK IZAPIDETU AHAL IZATEA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 217 artikuluaren 3. puntuak kreditu-transferentzien aurrekontu-aldaketak ahalbidetzen ditu hondamendi publikoko edo antzeko kasuetan. Modu horretan, gastu arlo desberdinen arteko kreditu transferentziak onesteko xedearekin toki-erakundeek hartzen dituzten erabakiak, hondamendi publikoko edo antzeko kasuetan, betearazleak izanen dira berehala, ezertan galarazi gabe haien kontra erreklamazioak aurkezteko aukera, zeinak aurkeztu eta hurrengo zortzi egun naturaleko epean bideratu beharko baitira, eta ezetsitzat hartuko baitira erreklamazioaren egileari epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bazaio.

## 1.6. BARNE KONTROL MUGATUKO ARAUBIDEAREN ERREGULAZIOA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 248.2 artikuluak bide ematen du edozein toki-erakundek aldez aurreko kontu-hartze mugatuko eredua ezartzeko aukera izateko. Halaber, eredu horren erregelamendu bidezko garapena aurreikusten du, araubide erkidean (Tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuan alegia) dagoenaren baliokide den erregulazio bat onartu ahal izateko, Nafarroako toki-erakundeei aplikatzen ez zaiena. Oraingoz ordea, ez da aldaketa hori gauzatu eta Ogasunei buruzko Foru Legearen 242 artikulutik 252ra aurreikusten dena aplikatu behar da.

## 1.7. TOKIKO OGASUNARI ZOR ZAIZKION KOPURUEI APLIKATU BEHARREKO INTERES-TASA

Txosten hau egitean, indarrean jarraitzen du Estatuaren 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Foru Legearen berrogeita bigarren xedapen gehigarriak, zeinaren arabera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 50.2.c artikuluak ezartzen duen **berandutza interes-tasa** urtean % 4,0625 izango baita. Xedapena 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrek araututako % 4,0625eko berandutza interes-tasarekin bat dator eta ez da aldatu oraindik aurrekontuak luzatuta daudelako. Gainontzeko zorren kasuan, **diruaren legezko interesa** aplikatuko da; hau ere arrazoi berberarengatik aldatu ez dena eta urtean % 3,25 izango dena. Honakoak dira urtez urte aplikatu beharreko interes-tasak:

| EKITALDIA | LEGEZKO INTERESA | BERANDUTZA-INTERESA |
|---|---|---|
| 2026 | % 3,25 (*) | % 4,0625 (*) |
| 2025 | % 3,25 | % 4,0625 |
| 2024 | % 3,25 | % 4,0625 |
| 2023 | % 3,25 | % 4,0625 |
| 2022 | % 3 | % 3,75 |
| 2021 | % 3 | % 3,75 |
| 2020 | % 3 | % 3,75 |
| 2019 | % 3 | % 3,75 |
| 2018 | % 3 | % 3,75 |
| 2017 | % 3 | % 3,75 |
| 2016 | % 3 | % 3,75 |
| 2015 | % 3,5 | % 4,375 |
| 2014 | % 4 | % 5 |

(*) Behin-behineko datuak dira Estatuko Aurrekontu Orokorrak onesten ez diren bitartean.

### 1.8. TOKI TRIBUTUETAN SALBUESPENAK ETA HOBARIAK KONPENTSATZEKO PROZEDURA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 57. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da. Artikulu horrek ezartzen du Toki Ogasunei buruzko Foru Legeaz bestelako foru legeetan aitortzen diren toki tributuen **salbuespen eta hobari fiskalak Toki Ogasunei konpentsatu beharko** zaizkiela. Konpentsazioaren prozedura azaroaren 9ko 325/1998 Foru Dekretuak arautzen du, dekretuak toki tributuen zerga onurak onestearen ondorioz toki-erakundeek eskatu dituzten konpentsazio ekonomikoen eskabideak tramitatzeko burutu behar den prozedura onesten baitu. Dekretu horren arabera, zerga-onura ezartzen duen legeak adierazten duen departamentuari egingo zaio konpentsazio-eskaera, edo Lurraldearen Kohesiorako Departamentuari, departamentu eskudunik adierazten ez bada. Eskaera seihileko natural bakoitzaren amaieran aurkeztu beharko da eta, gehienez, hiru hilabeteko epearen barruan ebatzi. Epe hori igaro eta ez bada berariazko ebazpenik egon, ebazpena aldekoa dela ulertutzat joko da. Normalean, ekitaldiaren amaieran izapidetzen ditu Nafarroako Gobernuak itzulketak, partidaren aurrekontu-zuzkidura handitu ondoren.

### 1.9. KONTSUMO-PREZIOEN INDIZEA (2025)

Kanon eta prezioen eguneratze-indizeak aplikatzeko, 2015etik hona **KPIaren bilakaera-indizearen informazioa** ikus daiteke jarraian.

| KPIAREN ALDAKETA %ETAN | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 | 2025 |
| NAFARROA | 0 | 1,8 | 0,6 | 1,3 | 1,3 | -0,6 | 6,6 | 6,4 | 2,9 | 2,7 | 2,6 |
| NAZIONALA | 0 | 1,6 | 1,1 | 1,2 | 0,8 | -0,5 | 6,5 | 5,7 | 3,1 | 2,8 | 2,9 |

## 2. TOKI TRIBUTUEI BURUZKO ARAUDIA

### 2.1. FORU OGASUNAREKIN IZENPETUTAKO HITZARMENA ZERGEI BURUZKO INFORMAZIOA TRUKATZEKO

2023ko martxoaren 22an izenpetu zen Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artean, **zergei buruzko informazioa trukatzeko eta zergen kudeaketan eta ikuskapenean elkarlanean aritzeko lankidetzarako esparru hitzarmena** lau urtez (2023ko martxoaren 26tik 2027ko martxoaren 25era) luzatzeko eranskina. Hitzarmenak oinarrizko bi helburu ditu. Alde batetik, zerga-arloan garrantzia duen informazioa trukatzea, bi administrazioentzat interesgarria izaten ahal dena, eta, bestetik, Foru Ogasunak toki-administrazioei zergak kudeatzen eta ikuskatzen laguntzeko zerbitzuak ematea. Bigarren zati hori Zerga Ogasunak bere erakunde instrumentalei egindako enkargu gisa kudeatu ahal izango da, eta toki-erakundeei jasanaraziko zaie zerbitzu horren kostua, enkarguak eta kostua onartu ondoren.

Bestalde, adierazitako eranskinean hitzarmenari eginiko aldaketa bat ere onetsi zen, udalerriak hitzarmenari **atxikitzeko prozedura** arautzen duen seigarren estipulazioari eragiten diona soilik. Aldaketak, funtsean, udalerrien atxikitzeen gauzapena hobetu asmo du atxikitze horiek modu eraginkorragoan kudeatzeko. Hori horrela, hitzarmenari atxiki nahi zaizkion udalerriek IV. eranskineko atxikitze-eskaera izenpetu beharko dute eta Nafarroako foru ogasunari jakinarazi beharko diote ondorioak sortu beharko dituen urtea baino lehenagoko urrian soilik. Era berean, hitzarmenaren bigarren estipulazioan aurreikusitako zerga arloko kudeaketarako eta ikuskaritzarako lankidetza eta babesa eskatuz gero, dagokion eranskina izenpetu beharko da Foru Ogasunak egin beharko duen jarduera zehatz-mehatz adierazita.

Azkenik, hitzarmenari atxikitako udalerriak Nafarroako Zerga Ogasunaren **gizarte lankidetzako sistemari** atxikitzat joko dira. Sistema hori Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan aurreikusia dago. Agindu horren bidez, kanpoko lankidetzarako ituna onetsi zen hirugarren pertsonen izenean telematika bidez aurkezteko aitorpenak, jakinarazpenak eta zerga arloko beste agiri batzuk, eta telematika bidez tramitatzeko zerga zorren ordainketa. Hirugarren pertsona horiek Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean erantzun beharko dute aipatu Foru Aginduan ezarritako baldintzetan. Kasu horietan, Foru Ogasunak bi bide gaituta ditu zerga alorreko kontsultak jasotzeko: "Bidali zure kontsulta" inprimakia erakunde laguntzaileentzat eta Ogasunaren bulego birtuala.

### 2.2. KATASTROKO INFORMAZIOA ETA BALORAZIO TXOSTENAK

Era berean, 2022tik aurrera toki ogasunek transferentzia arrunten kontzeptuan Nafarroako tributuetan duten partehartze funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituen martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legeak eutsi egiten dio udal bakoitzak transferentzia arrunten kontzeptuan jaso beharreko zenbateko osoaren % 10eko murrizketari, baldin eta udalak katastroko balorazio txostena eguneratuta ez badu edo hura bere udal-mugartean berrikusteko prozesua bost urteko epean hasi ez badu (20. artikulua).

Gainera, goi-tentsioko sareak modu arinean sartzen ahal dira toki-erakundeen katastroko informazioan Lurraren gaineko Kontribuzioa eta toki jabari publikoaren aprobetxamenduagatiko tasa likidatu ahal izateko. Ogasunarekin zergen inguruko informazioa trukatzeko izenpeturiko hitzarmenak zerbitzu hori eskatzeko aukera aurreikusten du.

## 2.3. LURRAREN GAINEKO KONTRIBUZIOA

Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatu zuen Lurraren gaineko Kontribuzioaren gutxieneko tasa % 0,25era igoz, % 0,10aren ordez. Xedapen hori dagoeneko indarrean da Transferentzia Arrunten Funtsari buruzko Foru Legea onetsi denez gero. Gutxieneko 0,25a baino gutxiagoko **Lurraren gaineko Kontribuzioaren tasa** indarrean duten erakundeek 2027ra bitarte izango dute tasa igotzeko, ezarritako tartean kokatzeraino, hots, % 0,25 eta % 0,5 artean.

**Arreta jarri behar zaio** Ogasunei buruzko Foru Legeak arautzen duen **zergaren kudeaketari**. Lege horri jarraiki, katastroko datuetan oinarrituta, udalek urtero martxoaren 31 baino lehen, behar diren likidazioak egin eta, tributu-zorrak zein diren zehaztuta, kobrantza-agiriak igorriko dituzte. Horretaz gain, Foru Lege horren arabera, katastroan alta eman ondorengo likidazioek ez dute jakinarazpen indibidualik beharko, eta kolektiboki jakinarazten ahalko dira horren berri emanen duten ediktuen bidez, baldin eta aurreko zergaldikoen berdin-berdinak badira edo izan diren aldaketak orokorrak badira.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak (11. puntuak) Lurraren gaineko Kontribuzioaren kuotaren % 90erainoko **aukerako hobaria** ezarri zuen, kasuan kasuko etxebizitza ohiko bizilekua denean **familia ugariaren edo familia gurasobakarraren titularrak** diren subjektu pasiboentzat. Toki-erakundeek hobari hori aplikatu ahalko diete kotizazio gabeko pentsioak dituzten zergadunei, errenta bermatua edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera jasotzen dutenei. Hobaria ordenantza fiskalez arautuko da eta aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da balorazio txosten osoa onetsi zenetik edo azken berrikuspena egin zenetik, gehienez, bost urte igaro ez izana. Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau.

Xedapen horrek, halaber, ondasun higiezinen gaineko zergaren kuota osoaren % 50erainoko hobaria ezarri zuen higiezinean eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen **aprobetxamendu** termiko edo elektrikorako **sistemak** ezarri direnean. Hobari hori jasotzeko, subjektu pasiboaren errentek ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxieneko soldata halako lau. Hobaria ordenantza fiskalez arautuko da.

Bestalde, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 13ko 1/2026 Foru Legeak hiru apartatu berri eransten dizkio 140. artikuluari eta, horri jarraiki, **% 90erainoko hobari berriak ezarri ahalko dira** Nafarroako Gobernuaren Alokairu Poltsaren bidez errentan dauden ondasun higiezinentzat, alokairuak irauten duen bitartean; etxebizitza iraunkor gisa alokatuta dauden ondasun higiezinentzat, baldin eta errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako prezio berean edo txikiagoan alokatuta badaude, Nafarroan Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 7.3 artikuluan ezarritako kalifikazioaren arabera; eta azkenik, elkarte edo kooperatiben eraikuntza- eta sustapen-jardueraren xede diren erabilera-lagapeneko ondasun higiezinentzat, betiere higiezin horiek bazkideen ohiko bizileku iraunkor gisa erabiltzen badira. Hobari horiek ere ordenantza fiskalez arautuko dira.

Azkenik, ondasun higiezinen kategoriak garatzerakoan, horien katastro-balioa zenbatesteko, luzeraren arabera baloratzen diren higiezinen tipologia barne hartu zen. Horrek energia-hornidurako **goi-tentsioko sareak katastroan alta ematea** ahalbidetzen du, Lurraren gaineko Kontribuzioaren zerga ordain dezaten, honako txosten honetako 2.2. atalean azaldu den moduan.

## 2.4. EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGA (EJZ)

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak (12. atalak, lehen xedapen gehigarriak eta azken xedapenetako lehenbizikoak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 150.1 artikuluari g) letra gehitu zion, negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino gutxiagokoa duten **subjektu pasiboak zergatik salbuetsiz**. Xedapenak negozio-zifra hori jarduera-modu guztietan neurtzeko modua zehazten du. Salbuetsitako jarduerak Nafarroako Gobernuak identifikatuko ditu Jarduera Ekonomikoen Erregistroan. Udalek jardueren erroldako altak eta bajak izapidetzen jarraituko dute, salbuespen hori gorabehera.

Salbuespen horren ondorioz jasotzen ez diren diru-sarrerak Toki Ogasunen Funtsaren zuzkidura espezifiko baten bidez **konpentsatuko zaizkie** toki-erakundeei. 5.000 biztanleko edo hortik beherako udalerrietan, Toki Ogasunen Funtsari buruzko 7/2022 Foru Legeak (II. Tituluan) aurreko zerga-aldiko zerga-kuoten % 100eko konpentsazioa kuantifikatzen du, salbuespenik ez balego, 2020an aplikatutako zergaren errekargu-koefizienteak kontuan hartuta. 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, kuoten ehunekoa % 95 izango da. Aipatu konpentsazioa bi soluziotan ordainduko da ekainean (aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren % 50 ordainduko da) eta urrian (behin betiko likidazioa egingo da).

## 2.5. ZIRKULAZIOAREN GAINEKO ZERGA

Ekitaldi honetan, % 2,7 handitu dira Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagozkion **tarifak. Tarifa berriak** Tributu-neurriei buruzko Foru Legearen bederatzigarren artikuluan jasotzen dira eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera daude indarrean. Honakoak dira tarifak:

| KUOTAK | 2025 | 2026 |
|---|---|---|
| **A) TURISMO IBILGAILUAK** | | |
| - 8 ZALDI FISKAL BAINO GUTXIAGOKOAK: | 22,95€ | **23,57€** |
| - 8 ZALDI FISKALETIK 12 BITARTEAN: | 64,54€ | **66,28€** |
| - 12 ZALDI FISKAL BAINO GEHIAGOKOAK ETA | 137,66€ | **141,38€** |
| - 16 ZALDI FISKAL BAINO GEHIAGOKOAK: | 172,15€ | **176,80€** |
| **B) AUTOBUSAK** | | |
| - 21 LEKU BAINO GUTXIAGOKOAK: | 160,60€ | **164,94€** |
| - 21 LEKUTIK 50 BITARTEKOAK: | 229,48€ | **235,67€** |
| - 50 LEKU BAINO GEHIAGOKOAK: | 286,85€ | **294,60€** |
| **C) KAMIOIAK** | | |
| - 1.000 KG BAINO GUTXIAGOKO KARGA | 80,40€ | **82,57€** |
| - 1.000 KG-TIK 2.999 KG-RAINOKO KARGA | 160,60€ | **164,94€** |
| - 2.999 KG BAINO GEHIAGOTIK 9.999 | 229,48€ | **235,67€** |
| - 9.999 KG BAINO GEHIAGOKO KARGA | 286,85€ | **294,60€** |
| **D) TRAKTOREAK** | | |
| - 16 ZALDI FISKAL BAINO GUTXIAGOKOAK: | 39,43€ | **40,49€** |
| - 16 ZALDI FISKALETIK 25ERAINOKOAK: | 78,83€ | **80,96€** |
| - 25 ZALDI FISKAL BAINO GEHIAGOKOAK: | 157,46€ | **161,71€** |

| E) ATOIAK ETA ERDI ATOIAK | | |
|---|---|---|
| - 1.000 KG BAINO GUTXIAGOKO KARGA | 40,24€ | **41,32€** |
| - 1.000 KG-TIK 2.999 KG-RAINOKO KARGA | 80,40€ | **82,57€** |
| - 2.999 KG BAINO GEHIAGOKO KARGA | 160,60€ | **164,94€** |
| **F) BESTELAKO IBILGAILUAK** | | |
| - ZIKLOMOTORRAK: | 5,78€ | **5,94€** |
| - 125 CC-RAINOKO MOTOZIKLETAK: | 8,68€ | **8,91€** |
| - 125 CC BAINO GEHIAGOTIK 250 CC-RAINOKO | 14,39€ | **14,78€** |
| - 250 CC BAINO GEHIAGOTIK 500 CC-RAINOKO | 28,36€ | **29,13€** |
| - 500 CC BAINO GEHIAGOTIK 1.000 CC-RAINOKO | 56,75€ | **58,29€** |
| - 1.000 CC BAINO GEHIAGOKO MOTOZIKLETAK: | 113,50€ | **116,56€** |

Jakina denez, araubide erkidearen toki legediak (gaztelaniazko sigletan TRLRHL), ibilgailu historikoei hobariak aplikatzeko aukera barne hartzen du, udalei ordenantzen bidez arautzeko ahalmena emanez. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitatean, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezarritakoa aplikatu behar da eta bertan ez da berariazko salbuespenik edo hobaririk ezartzen ibilgailu mota horientzat.

Dena den, aipatu behar da zergatik salbuetsitako balizko egoera bat badagoela: modeloaren antzinatasuna dela eta bajan emandako ibilgailuak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergatik salbuetsita egongo lirateke, ibilgailu mota horiei zuzenduriko erakusketetan, lehiaketetan edo lasterketetan soilik ibiltzeko baimena badute.

Hala ere, kontuan hartu beharreko zailtasun bat dago hor: Ibilgailuen Araubide Orokorrak ez duela egun, modeloaren antzinatasunagatik baja ematerik barne hartzen. Horrek, beraz, aurretik aipaturiko egoera aplikatu ahal izatea ekiditen du.

Ibilgailuen Araubide Orokorrean modeloaren antzinatasunagatik baja ematea barne hartzen duen berariazko araudirik ezean, ibilgailu historikoei, izaera horrekin bereziki matrikulaturik badaude, zergaren salbuespena era interpretatiboan aplikatu ahalko litzaieke Zirkulazioko Araubide Orokorrean adierazitako ekitaldietan soilik zirkulatzen badute betiere; hots, ibilgailu horietarako soilik erreserbaturiko erakusketetan, lehiaketetan edo lasterketetan. Interpretazio hori jurisprudentziak onartu du, Bartzelonako Administrazioarekiko Auzien 15. Epaitegiaren 2014ko ekainaren 17ko epaian jasotzen den moduan.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 159.3 artikuluari hitzez hitz men egingo bagenio, ibilgailu historikoei ezingo litzaieke azaldutako balizko egoeran zergatik salbuetsi. Gainera, ibilgailu historikoek aurreikusitako ekitaldi berezietatik kanpo zirkulatuz gero, zerga ordaindu beharko dute. Finean, Nafarroan ibilgailu historikoek ez dute ibilgailu horientzat araubide erkideak aurreikusten duen salbuespena izango (2005.12.15eko TANeko ebazpena. 05-02655 errekurtsoa).

## 2.6. GAINBALIOAREN GAINEKO ZERGA

Tributu-neurriei buruzko Foru Legeak (zortzigarren artikuluak) Gainbalioaren gaineko zergaren **koefizienteak eguneratzen ditu**; izan ere, gehieneko koefizienteak ezarri baitziren eta, legez, urtero eguneratu behar baitira. Toki-erakundeak ez badu horren inguruko akordiorik hartzen, legez ezarritako koefizienteak aplikatuko dira. Bestela, toki-erakundeak beste koefiziente batzuk aplikatu nahi baditu, 2026ko ekitaldi ekonomikoa hasi aurretik indarrean dagoen erabakia hartu beharko du, kontuan hartuta legeak arautzen dituenak gehieneko zifrak direla. Hurrengo orrialdeko taulan zehazten dira 2026rako ezarritako gehieneko koefizienteak eta aurrekoekin dagoen aldea.

| ZENBAT DENBORAN SORTU DEN | 2023KO KOEFIZIENTEAK | 2024KO KOEFIZIENTEAK | 2025EKO KOEFIZIENTEAK | ALDEA 25-24 |
|---|---|---|---|---|
| ≥ 20 | 0,38 | 0,13 | **0,16** | 0,03 |
| 19 urte | 0,16 | 0,06 | **0,06** | 0,00 |
| 18 urte | 0,10 | 0,06 | **0,06** | 0,00 |
| 17 urte | 0,06 | 0,06 | **0,15** | 0,09 |
| 16 urte | 0,06 | 0,06 | **0,25** | 0,19 |
| 15 urte | 0,08 | 0,16 | **0,26** | 0,10 |
| 14 urte | 0,20 | 0,17 | **0,31** | 0,14 |
| 13 urte | 0,20 | 0,22 | **0,37** | 0,15 |
| 12 urte | 0,25 | 0,29 | **0,42** | 0,13 |
| 11 urte | 0,32 | 0,35 | **0,53** | 0,18 |
| 10 urte | 0,37 | 0,47 | **0,58** | 0,11 |
| 9 urte | 0,50 | 0,52 | **0,52** | 0,00 |
| 8 urte | 0,54 | 0,46 | **0,47** | 0,01 |
| 7 urte | 0,48 | 0,40 | **0,41** | 0,01 |
| 6 urte | 0,42 | 0,33 | **0,35** | 0,02 |
| 5 urte | 0,36 | 0,27 | **0,37** | 0,10 |
| 4 urte | 0,30 | 0,30 | **0,35** | 0,05 |
| 3 urte | 0,32 | 0,27 | **0,26** | -0,01 |
| 2 urte | 0,30 | 0,17 | **0,13** | -0,04 |
| 1 urte | 0,20 | 0,06 | **0,16** | 0,10 |
| < urte 1 | 0,06 | 0,06 | **0,06** | 0,00 |

Koefizienteez gain, toki-erakundeek **zerga-tasa** finkatu behar dute, % 8 eta % 25 artean.

### 2.6.1. ZERGAPETURIK EGOTEA: ZERGAPETURIK EGOTEAREN ADIERAZPENA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 172. artikuluaren 4. atalean adierazten denez, **hiri-lurren eskualdaketak ez dira zergaren menpe egonen** baldin eta subjektu pasiboak frogatzen badu horietan ez dela balio-gehikuntzarik izan. Hori zehazteko, eragiketa horiek agiri bidez jasotako tituluetan zehaztutako lursailaren eskualdaketaren eta eskuratzearen balio errealak konparatuko dira. Nolanahi ere, balioak adierazitakoak baino handiagoak direnean, zilegi da udalak edo eskualdaketa kargatzen duten zergen kudeaketaz arduratzen den zerga administrazioak egiaztatutako balioak erabiltzea. Eskurapenaren balioak kontuan hartzeko, ez dira kontuan hartuko eragiketak zergapetuko dituzten gastuak edo tributuak.

Irabazizko eskualdaketa denean, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren aitorpenean jasota dagoena izanen da balio horien zenbateko erreala, edo, bestela, lehenago xedatutakoari jarraituz administrazioak egiaztatutakoak.

Eskurapenaren eta eskualdaketaren **balioa xehakaturik ez dagoenean**, honela kalkulatuko da: eskualdaketaren datan lurraren balio katastralak ondasun higiezinaren balio katastral osoarekiko egiten duen proportzioa aplikatuko da. Proportzio hori higiezinaren eskualdaketarako nahiz eskurapenerako aplikatuko da.

Aitortutako balioen gainean zergapeturik egotearen edo ez egotearen adierazpena behin-behinekoa izanen da, hori administrazioak egiaztatutako balioarekin erkatzen ez den bitartean. Foru Komunitateko zerga administrazioak, Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuaren bidez, jakinaraziko die udalei zein diren egiaztatutako balioak kasuan kasuko udal-mugarteko higiezinei dagokienez. Toki-erakundeek zerga-informazioa trukatzeko Nafarroako Zerga Ogasunarekin izenpetzen ahal duten hitzarmenean, egiaztatutako balioak jakinarazteko prozedura ere barne hartua dago.

Adierazi behar da ezen, gainerako kasuetan gertatzen ez den bezala, balio-gehikuntzarik ez izateagatik zergapetu gabe gelditzen diren eragiketetan, eskualdaketak **eten egiten duela** hurrengo eskualdaketan **zerga-oinarria zehazteko** konputatuko den **epea**.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak (hamaseigarren atalak) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 173.1 artikulua aldatu zuen. Aldaketa horrek argi uzten du 173.1 artikuluaren a), b) eta c) sailei dagozkion ezkontideen arteko eskualdaketetan (haien aktibo amankomunen ordainetan); edo ezkontideen arteko edo seme-alaben aldekoetan banaketa edo dibortzio kasuetan; edo doako edozein titulu bidez aurreko ahaideen, ondorengo ahaideen eta ezkontideen artean egiten diren eskualdaketetan, ez dutela eteten zergaren kuota zehazteko epea, ezta balizko balio-gehikuntza zehazteko epea ere; beraz, kargatu den aurreko eskualdaketaren balioari erreparatu beharko zaio.

## 2.7. ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA (EIOZ)

22/2020 Foru Legeak (15. atalak), % 95eko **aukerako hobari bat** arautu zuen EIOZ Eraikuntza, Instalazioen eta Obren gaineko Zergan, eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak ezartzen dituzten instalazioen edo obren alde. Hobari hori emateko, beharrezkoa izanen da beroa sortzeko instalazioetan dagokion homologazioa duten kolektoreak egotea. Ezinbestekoa da Ordenantza Fiskal bat onestea hobari hori aplikatzeko. Ordenantzan, hobariak esleitzeko prozedura eta hobaria jasotzeko moduko instalazioen deskribapena zehaztu beharko da.

Horretaz gain, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 13ko 1/2026 Foru Legeak etxebizitzekin zuzenean loturik dagoen Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari dagokionez, **hobari berriak** ezartzen ditu. Hobari horiek, nagusiki, zuzenduta daude alokairura bideratutako etxebizitzak eraikitzeko obren proiektuak gauzatzea babestera, halako moduz non zerga hori % 50 edo % 30 murrizten baita. Beste hobari bat ere ezartzen da elkarteek edo kooperatibek erabilera-lagapenean sustatutako etxebizitza edo ostatuen obretarako, bai eta udal-katalogoak babestutako eraikuntzetan egindako birgaitze-lanekin zerikusia dutenetarako ere. Kasu horretan ere, aipatu hobariak ordenantza fiskal baten bidez arautu beharko dira eta hobariak atzeraeraginezko izaerarekin aplikatzeko ahalmena gaitzen da, baina aipatutako udal-ordenantza onartzen denetik atzerako urtebeteko mugarekin. Foru Lege horretan zehazten den moduan, subjektu pasiboak aipatutako hobarietako bat baino gehiago eskatzen dituen kasuetan, hobaririk handiena soilik aplikatuko zaio. Laburbilduz, honako hauek dira aplikatu daitezkeen hobariak:

- % 50erainoko hobaria, alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetara bakarrik zuzendutako eraikuntza, instalazio edo obretarako.
- % 25erainoko hobaria, neurri batean alokairu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzetarako diren eraikuntza, instalazio edo obretarako, baldin eta guztizko kopuruaren erdia, gutxienez, babes ofizialekoa baldin bada.
- % 50erainoko hobaria, elkarteek edo kooperatibek erabilera-lagapenean sustatutako etxebizitza edo ostatuen eraikuntza, instalazio edo obretarako.
- Zergaren kuotaren %90erainoko hobaria, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak txertatzen dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako.
- % 50erainoko hobaria, udal-katalogoak babestutako eraikuntzetan etxebizitza babestuak egiteko eraikuntza, instalazio edo birgaitze-lanetarako.
- % 30erainoko hobaria, lehentasunez zaharberritu beharreko eremuetan eta esku-hartze publikoko planen arloetan txertatutako eraikuntzetan etxebizitza babestuak egiteko eraikuntza, instalazio edo birgaitze-lanetarako.

Bestalde, salbuespenei dagokienez, HFP/1193/2023 Aginduak, urriaren 31koak, ondorerik gabe utzi du Ogasun Ministerioa-

**1. TAULA. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN BILAKAERA 2026-2025**

| FUNTSAREN EGITURA | EGUNERATZE-IRIZPIDEA | 2025EKO FUNTSA | 2026EKO FUNTSA | HAZKUNDEA % |
|---|---|---|---|---|
| FINANTZAKETA OROKORREKO FUNTSA | KPI+2+GAINONTZEKOA | 244.409.556 | 256.015.511 | % 4,75 |
| NUKFren LAGUNTZA | IPC | 523.016 | 535.568 | % 2,40 |
| ZERBITZUAK FINANTZATZEKO FUNTSA | MISTOA | 23.245.147 | 23.803.031 | % 2,40 |
| IKASTETXEAK | KPI | 18.596.118 | 19.042.425 | % 2,40 |
| 0-3 HEZKUNTZA | KPI | 3.486.772 | 3.570.455 | % 2,40 |
| LIBURUTEGIAK | KPI | 1.162.257 | 1.190.152 | % 2,40 |
| MONTEPIOAREN DEFIZITA FINANTZATZEKO FUNTSA | KPI + 2 | 30.132.343 | 31.458.166 | % 2,40 |
| KOHESIORAKO FUNTSA | KPI | 18.828.569 | 19.280.455 | % 2,40 |
| **GUZTIZKO PARTZIALA** | | **317.138.631** | **331.092.731** | **% 4,40** |
| **EJZren KONPENTSAZIOA** | **ESTIMATUTAKO LIKIDAZIOA** | **13.900.000** | **13.900.000** | **% 0,00** |
| **GUZTIRA** | | **331.038.631** | **344.992.731** | **% 4,22** |

ren 2001eko ekainaren 5eko agindu bat. 2001eko agindu hark argitzen zuen Eliza Katolikoa hainbat zergatatik salbuetsita egonik, EIOZ salbuespen horien artean zegoela, Espainiak eta Egoitza Santuak 1979an izenpeturiko akordio ekonomikoari jarraiki.

2001eko arauak bi ideia nagusi adierazten zituen: batetik, ulertutzat jotzen zela EIOZ Espainiak eta Egoitza Santuak izenpeturiko akordioaren barruan zegoela eta, bigarrenik, Elizako zenbait erakunde (Egoitza Santua, apezpiku-batzarra, diozesia, parrokiak, erlijio-ordenak eta abar) zerga hori ordaintzetik guztiz salbuetsita zeudela beti. Edonola ere, 2001eko agindu hori indargabetu izana ez da nahikoa Elizak EIOZaren salbuespen hori galdu duela ulertzeko. Hala ere, HFP/1193/2023 Agindu berriaren azalpenean espresuki adierazten da 2023ko martxoaren 29an Espainiako Gobernuak eta apezpiku-batzarrak, oharren truke baten bidez eta 1979ko akordio ekonomikoaren akordio gehigarri gisa, adostu zutela Elizak uko egiten ziela EIOZari eta kontribuzio bereziei dagozkien salbuespen guztiei.

Uko egite horren ondorioz, Gobernuak 2001eko agindua bertan behera uzteko asmoa adierazi zuen, eta hala egin zuen 2023ko aginduaren bidez. Hortaz, benetan EIOZaren salbuespena desagertzea berez ez da 2001eko agindua indargabetzetik etorri, Elizak 2023ko akordioaren bidez onura fiskal horri berariaz uko egin izanagatik baizik. Garrantzitsua da hori, salbuespena ez zelako ministerioaren agindu batetik etortzen, Espainiaren eta Egoitza Santuaren arteko 1979ko nazioarteko akordio batetik baizik. Beraz, akordio hori aldatuta soilik —oharren trukearen bidez egin zen moduan— kentzen ahal zen benetan salbuespena.

Praktikan, salbuespena 2023ko azaroaren 4tik aurrera bertan behera gelditu zela ulertzen da, orduan jarri baitzen indarrean 2001eko agindua indargabetu zuen agindua (EAOn argitaratu eta biharamunean). Hala ere, ez dago ziurtasunik jakiteko 2023ko oharren truke hura ofizialki argitaratu ote zen ezta noiz argitaratu zen ere, beraz, data hori salbuespena desagertzeko momentua zehazteko balio dezake desagerpenaren jatorria Egoitza Santuarekin adostutako akordioan baitzegoen eta ez ministerioaren aginduan.

## 2.8. ETXEBIZITZA HUTSEN GAINEKO ZERGA

Zerga Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 184. artikulutik 191ra bitartean arautua dago. Udalerri guztientzat nahitaezkoa bada ere, **zerga-tasak ezartzeko berariazko akordioa** behar du 188. artikuluak ezartzen duenari jarraiki, eta Lurraren gaineko Kontribuzioarekin batera kudeatuko da.

Etxebizitza Hutsen gaineko Zerga huts gisa jotzen den etxebizitzaren katastro-balioaren gaineko kuota bat da. Kuota hori gero eta handiagoa da eta, lehenengo urtean, Lurraren gaineko Kontribuzioaren zergaren baliokidea da. Hurrengo urteetan, tasak handituz doaz etxebizitza hutsik egoteari uzten dion arte. Udalerri bakoitzak aplikatu beharreko karga-tasak onetsi beharko ditu legeak ezarritakoari jarraiki. 4/2019 Foru Legearen xedapenek karga-tasetan eta Lurraldearen gaineko Zergan eragina izan zuten; hala, aldaketa bera eta horri egokitzeko bost urteko epea 2023an jarri ziren indarrean.

**Hutsik dauden etxebizitzen errolda** bat oinarritzat harturik ordainarazten da zerga. Errolda hori Nafarroako Gobernuak osatutako Etxebizitza Hutsen Erregistrotik abiatuta egiten da eta erregistro hori, era berean, Nafarroan Etxebizitza izateko Eskubidea arautzen duen 10/2010 Foru Legean dago araututa, 28/2018 Foru Legeak emandako idazketaren arabera. Azken foru lege horrek 42. sexies artikuluari idazketa berri bat eman zion eta, horren arabera, Etxebizitza Hutsen Erregistroa sortu eta horren funtzionamendua eta ondorioak arautu ziren.

Nafarroako Gobernuak etxebizitzak erregistroan sartzen dituenean, udalari jakinarazten zaio erroldan sartu eta likidazioa egin dezan. Udalek etxebizitza huts gisa erregistratu direla jakinaraziko diete etxebizitzen titularrei, eta zerga Lurraren Kontribuzioarekin batera likidatuko dute.

## 2.9. ZORU, ZORUPE ETA HEGALKINEAN EGINDAKO APROBETXAMENDUARI DAGOKION % 1,5EKO TASA

% 1,5eko tasa jabari publikoaren aprobetxamenduari dagokion tasaren kasu berezia da eta herritar guztiei edo zati handi bati eragiten dieten hornidurak banatzen edo merkaturatzen dituzten enpresei aplikatzen zaie. Berezitasuna da konpainiek beren lineekin eta instalazioekin egiten duten jabari publikoaren aprobetxamenduaren balioa termino bakoitzean fakturatzen dutenaren % 1,5 dela estimatzen dela, zeharkako prozedura baten bidez. **NUKFk kudeatzen du** kudeaketa-hitzarmena sinatu duten gas, elektrizitate edo telefonia finkoko konpainia hornitzaileen **tasaren kobrantza**. Enpresa merkaturatzaileen kopurua gero eta handiagoa da. NUKF bitartekaria ez den kasuetan, toki-erakundeek zuzenean likidatu behar dute. Gomendagarria da enpresa merkaturatzaile berrien fakturazioa NUKFri jakinaraztea, bereziki fakturazio-bolumena handia bada, tasa hauen likidazioan NUKFren esku-hartzea aktibatzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak (3. atalak) Toki Ogasunei buruzko Legearen 105.1 artikulua aldatu zuen aipatu tasaren araudia eguneratzeko eta araubide erkidearen antzera arautzeko. Horrek zergaren kudeaketa errazteaz gain, enpresa merkaturatzaileek zerga betetzea ere erraztu du, oro har, enpresek ez baitute ezagutzen Nafarroako ogasunen arloko araudia. Gainera, Nafarroako araudia zaharkiturik zegoen energiaren merkatuaren erreforma baino lehen jarri baitzen indarrean. Erregulazio berriak zerga-oinarria zehazteko elementuak zehazten ditu, eta zehazten du konpainia merkaturatzaileek fakturazio-oinarritik kendu ahal izango dituztela banatzaileei sareen erabilera-bidesariengatik ordaintzen dizkieten kopuruak, bai eta ondoren saltzen den energia sortzeko erabiliko diren hornidurengatiko fakturazioa ere (kogenerazio--instalazioak).

NUKFk zerga hori eta aipatu tasa kudeatzeari buruzko informazio guztia NUKFren web-orrian dago ikusgai.

## 2.10. GOI-TENTSIOKO SAREEN JABARI PUBLIKOAREN APROBETXAMENDUAREN GAINEKO TASA

NUKFk eta Zerga Ogasunak izenpeturik duten hitzarmenaren barruan eta TRACASArekin elkarlanean, argindar-, gas-, ur- eta hidrokarburo-instalazioek toki jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik **tasa bat ordain dezaten lortzeko lanak** egiten ari dira. Izan ere, energia hornidura horien lineak % 1,5eko tasa ordaintzetik at gelditzen baitziren azkeneko erabiltzaileei hornidura ematen ez dietelako. Linea horiek erabiltzen duten espazio fisikoarengatik ordaindu behar dute tasa eta ez fakturazioaren arabera.

Beharrezkoak diren txosten ekonomiko-teknikoak egiteko lanetan ari dira higiezin horien jabari publikoaren aprobetxamenduaren gaineko tasak arautzen dituzten Ordenantza Fiskalak izapidetzeko eta aprobetxamendutik eratorritako erabileraren balioa zenbatesteko, azken hori baita tasa honen zerga-oinarriaren funtsezko elementua.

### 2.11. SANEAMENDUKO KANONA

Tributu-neurriei buruzko Foru Legeak Saneamenduko Kanonaren **tarifak eguneratzen ditu**. Hala, Nafarroako Hondakin--uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikuluko 1.a), b eta c) eta 4. atalak aldatzen ditu. Honela gelditzen da testua:

*"a) Saneamenduko sare publikoetara konektatutako etxeko ur-erabilerei aplikatu beharreko karga tasak: 0,813 euro metro kubiko bakoitzeko.*

*b) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako etxekoez bestelako ur-erabilerei aplikatu beharreko karga-tasak: 0,845 euro metro kubiko bakoitzeko. Kutsatze-kargari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian arautako moduan.*

*c) Saneamendu-sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek emandako baimen administratibo beharrezkoak dituzten erabiltzaileak: 0,097 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, kasuko tarifa aplikatuko da, a) edo b) letretan ezarritakoa".*

Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik:

| NEURKETA | PREZIOA (€/m$^3$) |
|---|---|
| 5 m$^3$ arte | 54,37 € |
| 10 m$^3$ arte | 108,75 € |
| 10 m$^3$ baino gehiago | 10,88 €/m$^3$ |

Taulan agertzen diren zenbatekoei BEZa aplikatuko zaie.

## 3. TOKI OGASUNEK NAFARROAKO TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO FUNTSA

### 3.1. TRIBUTUETAN PARTE HARTZEKO FUNTSAREN ARAUBIDEA

2022ko martxoan, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsaren araudia barne hartzen duten 6/2022, 7/2022 eta 8/2022 foru legeak onetsi ziren. 6/2022 Foru Legeak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 123 artikuluaren arautze berria hartzen du bere gain. 7/2022 Foru Legeak Transferentzia Arrunten Funts berria arautzen du denbora-tarte mugagabe baterako; eta 8/2022 Foru Legeak 2022-2028 aldia barne hartzen duen Toki Inbertsioen Plan berria arautzen du.

123. artikuluaren aldaketak Transferentzia Arrunten Funtsa urtean KPIa gehi bi punturen arabera eguneratzea aurreikusten du. Kapital Transferentzien Funtsak berriz, urtean 30 milioi euroko zuzkidura izango du, urtero KPIaren arabera eguneratuko dena.

**Tributuetan parte hartzeko funtsak lau atal** izango ditu: Transferentzia Arrunten Funtsa, Kapital Transferentzien Funtsa, NUKF finantzatzeko zuzkidura eta EJZren salbuespena konpentsatzeko funtsa. Gainera, beste funts batzuk gehitzeko aukera zabalik da, Tributuetan Parte-hartzeko Funtsaren zuzkidura- eta eguneratze-baldintzetatik at egongo liratekeenak.

6/2022 Foru Legeak indargabetu egiten du 4/2019 Foru Legearen Zortzigarren Xedapen Iragankorra, zeinak Funtsean zerbitzu-moduluen bidez finantzatuko diren zerbitzuak eta jarduerak ezartzen baitzituen. Horren ordez, xedapen gehigarri bakarra du, Funtsaren zuzkidurak eta tokian tokiko indarrean dauden toki-erakundeen eskumenen banaketaren arteko lotura aurreikusten duena. Xedapen horrek hiru urteren buruan eskumenak argitzeko proposamen bat igortzea eskatzen dio Gobernuari, toki-erakundeei esleituko zaizkien eskumenen finantza-nahikotasuna ziurtatzeko behar diren baliabideen zuzkidura aurreikusiko duena.

Lurralde Kohesioko Departamentuak web-atari bat gaitu zuen eta, bertan, Toki Administrazioarekin zerikusia duen informazio asko argitaratzen da. Gaika egituraturik dago eta azpigaietan "Ekonomiko" eta "Tokiko azpiegiturak" izenekoetan tributuetan parte hartzeko sistemaren aplikazioarekin lotutako informazio guztia eskuratu daiteke.

Halaber, CONCEJO aldizkariaren 2022ko ekaineko 379. aleak Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko ereduari buruzko txostena dakar.

### 3.2. 2026KO TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA

#### 3.2.1. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSAREN ZUZKIDURA

2026rako Funtsaren 317.138.631 euroko hasierako zuzkidura KPIa gehi bi puntu eguneratuko da ekainetik ekainera neurtuta; hau da, % 4,40ko eguneraketa. Hortaz, 2026ko Funtsa **331.092.731** eurokoa da. Gainera, **13.900.000** euroko beste zuzkidura bat gehitu da 2026an EJZren salbuespena konpentsatzeko. Azken kopuru hori konpentsazioaren balio errealaren arabera likidatuko da eta, horregatik, ez dago eguneratzearen irizpide orokorrari lotua. Aurrekontuaren ikuspuntutik, Funtsak lau atal ditu: Funts Orokorra, NUKFri zuzenduriko laguntza, Montepioen defizitaren konpentsazioa eta EJZren diru-sarreretan egondako galeren konpentsazioa. Hara ere, eguneratze irizpideak eta banaketa formula ezartzeko lau atal horiek atal gehiagotan banatu behar dira Funts Orokorrak **lau banaketa-irizpide** oso ezberdinak dituelako: Funts Orokorra (gastu-beharrak eta gaitasun fiskala konbinatzen dituen formula baten arabera udal eta kontzejuen artean banatzen dena), Zerbitzuen Funtsa (zerbitzu zehatzak ematen dituzten erakundeen artean banatzen dena), Kohesio-funtsa (trakzio-izaera edo nolabaiteko zentraltasun-maila duten 29 udalerrien artean banatzen dena), eta Montepioen Defiziterako Funtsa (toki-erakunde bakoitzari defizit hori konpentsatzen diona). (Ikusi 1. TAULA)

#### 3.2.2. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA TOKI-ERAKUNDE BAKOITZARI NOLA BANATZEN ZAION

Erakunde bakoitzari irizpide ezberdinen arabera egokitzen zaion banaketa Toki Administrazioaren web-orrian kontsulta daiteke:

- **Finantzaketa Orokorraren Funtsa udalerri bakoitzari nola banatzen zaion.** Banaketa honako aldagai eta haztapenen arabera egiten da:

| ALDAGAIA | HAZTAPENA | AKRONIMOA |
|---|---|---|
| POPULAZIOA | 0,64575 | POB |
| ERABILERA PUBLIKOKO HIRI-AZALERA | 0,07275 | SUP |
| BIZTANLERIAREN SAKABANAKETA-INDIZEA | 0,01875 | DIS |
| 65 URTE BAINO GEHIAGOKO BIZTANLEAK | 0,06750 | P65 |
| POBREZIA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEEN HAZTAPENA | 0,06000 | PRP |
| LURRAREN KONTRIBUZIOAREN KUOTA OSOA | 0,1422 | CTU |
| TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ESKUBIDE LIKIDATUAK | 0,0482 | IVTM |
| LIKIDATUTAKO ESKUBIDEAK, ERRENTEI ETA APROBETXAMENDU BEREZIEI DAGOZKIENAK | 0,0325 | IPAC |
| EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGAREN OINARRI-KUOTA | 0,0272 | IAE |
| **GUZTIRA** | **1 (%100)** | |

Aldagai bakoitzaren balioa Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak ezartzen du. Kontuan hartu behar da ezen, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren oinarri fiskalari dagokion aldagaia aplikatzeko, beharrezkoa dela toki-erakundeek aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa edo kontuak igorrita izatea; bestela, eskuratzen ahal den azken ekitaldiko balioa % 10 handituta aplikatuko da. Aurreko hiru ekitaldien gaineko informaziorik ez badago, aldagai horren per capita datu handiena aplikatuko da, biztanle kopuruarekin biderkatuta.

Udal konposatuen kasuan, kontzejuari zuzkiduraren % 30 esleituko zaio kontzejuko biztanleriak udalerri osoarekiko duen ehunekoarekin biderkatuta.

- **Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsaren eta Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsaren banaketa**

Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsak honakoen finantzaketa osatzen du: titulartasun publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen finantzaketa, Hezkuntza Departamentuak baimendutako Haur Hezkuntzako Lehen zikloko ikastetxeena (0-3 urte), Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udal liburutegiena eta Montepioen defizita, dagoeneko aipatu dugun baldintzetan. 2026rako zuzkidura % 2,40 haziko da lehenengo hiru irizpideen kasuan eta % 4,40 Montepioei dagokienez. Baina banaketa eguneratutako aldagaien arabera egingo da. Era berean, Montepioen zuzkiduran soberakinak egonez gero, Finantzaketa Orokorreko Funtsaren zuzkidura handitzeko erabiliko da eta funtsaren bigarren ordainketan banatuko da.

Funts horren lehenengo hiru epigrafeen **2025eko banaketa** pdf honetako 3. eranskinean ikus daiteke.

Kontuan hartu behar da funts horren agerpenarekin Hezkuntza Departamentuak eskola kontzentrazioen herriburu diren toki-erakundeei herrian bizi ez diren baina arauak hala agindu-ta kontzentrazio horietan eskolatzen diren ikasle kopuruaren arabera eskola kontzentrazioetarako ematen zien dirulaguntza kendu egin dela.

Banaketarako aldagaiak ekitaldi bakoitzean zerbitzuak emateko unitateekin loturik daude eta honakoak dira:

| ZERBITZUAK FINANTZATZEKO FUNTSA | |
|---|---|
| **ZUZKIDURA** | **BANAKETARAKO IRIZPIDEA** |
| Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak | Eskola-unitateen eta ikasle kopuruaren araberako banaketa |
| 0-3 urtekoen ikastetxeak | Finantzaketa-moduluen eta hitzarmenaren araberako banaketa |
| Liburutegiak | Liburutegiaren azaleraren araberako banaketa eta liburuzain postua dagoen edo ez kontuan hartuko da |
| Montepioen defizita | Toki-erakundeek jasandako defizit osoa konpentsatzea, aktiboen soldata-kostuaren gizarte-segurantzako kotizazioari dagokion %32 izan ezik.<br>Partida osoa kontsumitzen ez bada, gainontzekoa Funts Orokorrera igaroko da. |

Funts hori esleitzeko xedapen osagarriak ezarri dira udalerriaz bestelako toki-erakundeek, kontzejuek edo elkarteek, zerbitzua kudeatzen duten kasu partikularretan.

- **Lurralde Kohesiorako Funtsaren banaketa**

Lurralde Kohesiorako Funtsa trakzio-izaera duten 29 udalerrien artean banatzen da eta udalerri bakoitzaren parte-hartze portzentajea Trakzio Gaitasunaren Indizearen arabera ezartzen da. Indize horrek banaketa-sistema horretan sartutako erakundearen populazioa haztatu egiten du. Ondorioz, parte-hartzearen ehunekoa da indize horren arabera haztatutako biztanleria ordezkatzen duena, barnean hartutako 29 udalerrien guztizkoari dagokionez.

Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia gaitu dute **lau urtean behin** Trakzio Gaitasunaren Indizea **eguneratzeko**. Hortaz, laugarren urtera arte ez du aldaketarik izango. Beraz, funts honetako parte-hartzearen portzentajea biztanleriaren aldaketaren arabera aldatuko da soilik. 2025ean udalerri bakoitzari egokitutako zenbatekoa pdf honetako 5. eranskinean kontsulta daiteke.

2026ari dagokion zuzkidura % 2,40 haziko da aurreko urtekoarekin alderatuta baina kontuan izan beharko dira biztanleria kopuruan egon daitezkeen aldaketak banaketa zertxobait aldatu baitezakete.

### 3.2.3. BERME-SISTEMA

2021ean jasotako kopuruen bermea egonkor mantentzen da urtean % 1 eguneratuz. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien gutxieneko zuzkidura ekitaldi horretan jasotakoaren % 98 da. Udalerriei bermatzen zaien kopurua 2021ean jasotakoa da, jarduneko menpeko langileen eta administrarien montepioen defizitari dagokion zatia kenduta, hori zuzkidura aldagarria delako.

Kontzejuei dagokienez, berme-sistema bera aplikatzen da baina funtsetik jaso ahal den gehieneko kopuru bat ezartzen da, hots, biztanleria-tarteen arabera jasotakoaren batez bestekoaren % 150. Irizpide horren justifikazioa da aurreko sistemak kontzeju zehatz batzuei gehiegizko kopuruak ematen zizkiela dagoeneko ematen ez dituzten zerbitzu batzuk oinarritzat harturik, adibidez, eskola-kontzentrazioak edo dagoeneko erabiltzen ez diren aldagaien balioak. Gehieneko kopuruak urtean % 1 eguneratuko dira.

Honakoak dira, biztanleria-tarteen arabera, **kontzejuentzako gehieneko kopuruak**:

| KONTZEJUAREN BIZTANLERIA (BIZTANLEAK) | GEHIENEKO BERMEA 2024AN | GEHIENEKO BERMEA 2025EAN |
|---|---|---|
| 25, gehienez | 5.122 € | 5.173 € |
| 26 eta 50 artean | 10.310 € | 10.413 € |
| 51 eta 75 artean | 11.857 € | 11.975 € |
| 76 eta 100 artean | 17.671 € | 17.848 € |
| 101 eta 150 artean | 26.080 € | 26.341 € |
| 151 eta 200 artean | 30.382 € | 30.685 € |
| 201 eta 500 artean | 55.878 € | 56.437 € |
| 501 eta 1.000 artean | 101.739 € | 102.756 € |
| 1.001 eta 2.000 artean | 104.311 € | 105.354 € |
| 2.001 eta 3.000 artean | 320.452 € | 323.657 € |
| 3.000 baino gehiago | 444.501 € | 448.946 € |

**Bermatutako kopuruak** Foru Legearen eranskin batean ezarrita daude finkaturik gera daitezen eta erakunde bakoitzak zein kopuru aplikatzen zaion jakin dezan. Horretaz gain, txosten honetan adierazitako web esteketan ere ageri dira.

Bermeen urteko % 1aren eguneratzea KPIaren garapena positiboa izatearen mende gelditzen da. Beraz, KPIa negatiboa baldin bada, baina KPIa gehi bi punturen baturak balio positiboa ematen badu, hazkundea osorik formula aplikatzera bideratuko da eta ez bermea handitzera. KPIaren bilakaera ikusita, 2026rako % 1a aplikatuko da.

### 3.2.4. BALORAZIO TXOSTENAK GAURKOTZEA

Transferentzia Arruntei buruzko Funtsa arautzen duen 7/2022 Foru Legearen 20. artikuluak aurreikusten duenaren arabera, udalek katastroko balioak gaurkotu gabe badituzte edo indarreko legeriarekin bat balorazio prozesua hasi gabe badute, transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten zenbatekoa % 10 murriztuko da. Indarreko legeria aipatzen denean, araudiak balorazio txostenak berrikusteko aurreikusten duen bost urteko gehieneko epeari dagokiola ulertzen da. Hala ere, xedapenak ez du zehazten zeintzuk diren hartu behar diren akordioak.

Beste neurri batzuk hartu ez badira, behintzat, txostena eguneratzeko erabakia hartua izan beharko du Osoko Bilkurak, betiere toki-erakundeak jaso beharreko zenbatekoa zehaztu baino lehen. Teorian, hori gertatzen da banatzeko aldagaien balioa zehazteko behar den informazioa aurkezteko epea bukatzen denean, hau da, apirilaren 30ean.

### 3.2.5. FUNTSAREN ATXIKIPENA AURREKONTUETAKO ETA KONTABILITATEKO LIKIDAZIOEN INFORMAZIOA EZ BIDALTZEAGATIK

Era berean, 21. artikuluak dioenari jarraiki, erakunde batek igorri ez badu banaketaren aurreko bigarren urteko kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa, jaso beharreko kopuruaren % 10 atxikiko zaio. Behin betebehar hori beteta, atxikitako zenbatekoak ordainduko zaizkio.

Halaber, legeak jasotakoarekin bat, baldin eta ukitutako toki-erakundeek behar bezala justifikatzen badute aipatutako betebehar hori ezin dutela bete, Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiak funtsen atxikipena eteten ahalko du, egindako alegazioen arabera, osoko bilkurak edo ukitutako erakundeko organo baliokideak eskaera egin ondoren.

### 3.2.6. EJZREN SALBUESPENA KONPENTSATZEKO ZUZKIDURA

Orain arteko baldintza beretsuetan, 1.000.000 euro baino gutxiagoko fakturazioa duten jardueren EJZren salbuespena konpentsatzeko 13,9 milioiko zuzkidura aurreikusia dago. Konpentsazioa salbuetsita geratu diren kuota guztien baliokidea da, baina udalerri bakoitzak 2020an aplikatutako zergaren errekargu-koefizienteak kontuan hartuta. **Aurreko ekitaldirako estimaturiko likidazioa** konpentsatuko da; kasu honetan 2024koa. 5.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan, konpentsazioa kuoten % 95ekoa izango da. Udal bakoitzari dagokion zenbatekoa Nafarroako Gobernuak zehaztuko du.

### 3.2.7. TRANSFERENTZIA ARRUNTEN FUNTSA OROKORRA ETA BESTELAKO LAGUNTZAK TOKI-ERAKUNDEEI BANATZEKO MODUA

Funtsa **bi ordainketatan** banatuko da **otsaila** eta **abuztua** amaitu baino lehen. Lehenengo ordainketa aurreko ekitaldian jasotakoaren % 50 izango da. Abuztuan berriz, gainontzekoa ordainduko da banaketa formula aplikatu ondoren. Horretarako, adierazi den moduan, beharrezkoa izango da maiatzaren bata baino lehen aldagaiak aplikatzeko eskatzen den informazioa aurkeztea, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren likidazioari buruzkoa, aurreko ekitaldiko kontuak edo aurrekontuen likidazioa aurretik bidali ez badira.

**Montepioen defizitari dagokion zatia** bigarren ordainketan likidatuko da eta **EJZren salbuespena** bi soluziotan, ekaina eta urria amaitu baino lehen. Lehenengo ordainketaren zenbatekoa aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren erdia izango da.

### 3.2.8. KAPITAL TRANSFERENTZIEN FUNTSA (TOKI INBERTSIOEN PLANA)

2022tik aurrera, Toki Inbertsioen Plan berria martxan jarri zen 8/2022 Foru Legeak araututa. Plan berriak urteko hasierako 30 milioi euroko zuzkidura du eta KPIaren arabera eguneratuko da urtero. Planak aurreko planen antzeko **hiru atal** ditu: Inbertsio Programak, Toki Programazioa eta Determinazio Libreko Programa. Toki Inbertsioen Planak **2022tik 2028ra bitarteko indarraldia izango du**. Eta luzatu egingo da hurrengo plana indarrean egon arte baina urteko zuzkidura berri batekin (dagoeneko finkatua); aurreko planen luzapenetan gertatzen ez zen bezala. Izan ere, planen luzapenetan ez zen zuzkidurarik gehitzen eta zuzkidura beraren kudeaketa luzatzen zen.

Planak **bi programazio-aldi** ditu: 2022-2025eko aldia eta 2026-2028koa. Ekitaldi bakoitzean, % 30 bideratuko da Inbertsio Programetara eta beste horrenbeste Determinazio Libreko Programara eta % 40 berriz, Toki Programaziora. Salbuespena 2022an etorri zen, Toki Programaziorik ez baitzen egon eta % 50 bideratu baitzen Inbertsio Programetarako eta Determinazio Libreko Programarako, hurrenez hurren.

Inbertsioen Planari buruzko informazio guztia Lurralde Kohesioko Departamentuaren atarian kontsulta daiteke.

### TIP-AREN OINARRIZKO EZAUGARRIAK

| INBERTSIO PROGRAMAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| INBERTSIO-LERROA | ZUZKIDURA GUZTIRA (%) | 2025KO ZUZKIDURA | 2026EKO ZUZKIDURA | FINANTZAKETA (BEZ EZ KENGARRIA) | FINANTZAKETA (BEZ KENGARRIA) |
| Uraren goi-hornidura | %80 | 8.078.451 | 8.569.091 | %95 | %80 |
| Hiri-hondakinen tratamendua | %19 | 2.019.614 | 2.035.159 | %95 | %80 |
| Uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak | %1 | 362.257 | 107.114 | %100 | %100 |
| **ZUZKIDURA GUZTIRA** | %100,00 | 10.460.322 | 10.711.364 | - | - |
| **TOKI PROGRAMAZIOA** | | | | | |
| Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak | %30 | 3.031.337 | 4.284.546 | %85 | %70 |
| Zoladura-lanak sareekin | %32 | 3.411.141 | 4.570.182 | %85 | %70 |
| Sarerik gabeko zoladura-lanak | %12 | 2.734.144 | 1.713.818 | %75 | %60 |
| Zeharbideen urbanizazio-lanak | %8 | 1.625.485 | 1.142.545 | %85 | %70 |
| Udal eta kontzejuetako zuzkidurak | %18 | 3.145.015 | 2.570.727 | %75 | %60 |
| **ZUZKIDURA GUZTIRA** | %100,00 | 13.947.122 | 14.281.818 | - | - |
| **DETERMINAZIO LIBREKO ZUZKIDURA** | | | | | |
| Determinazio Libreko zuzkidura | %100 | 10.460.317 | 10.711.364 | %100 | %100 |

### 3.2.9. INBERTSIO PROGRAMAK

Inbertsio Programei eskainitako atalak **goi-hornidurako jarduketak eta hondakinen kudeaketa integrala** barne hartzen ditu. Inbertsioak Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez gehitzen dira, aldez aurretik Toki Araubideko Foru Batzordearen txostena izanik, eta 2019-2030 aldirako uraren ziklo integralaren plan gidarietan eta 2017-2027 aldirako Nafarroako hondakinen planean jasotako aurreikuspenen arabera gauzatuko dira. Era berean, atal honek uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak egiteko zuzkidura txiki bat ere dakar.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiaren 130E/2025 ebazpenak 2026-2028 aldirako barne hartutako inbertsioak eta erreserbakoak jasotzen dituen zerrenda onetsi zuen. Obrak % 80 edo % 95 finantzatuko dira BEZa kengarria den edo ez kontuan hartuta.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak emaniko uztailaren 3ko 226E/2025 Ebazpenaren bidez onetsi egin dira, 2026-2028 plangintza-aldirako, batetik, uraren goi-horniduraren eta hiri hondakinen tratamenduaren arloan, lehentasunezko inbertsioen zerrendak, Toki Inbertsioen Planean behin-behinean sartutakoak aurrekontu baliabideen kargura, eta bestetik, uraren goi-horniduraren arloan, erreserbako inbertsioen zerrendak, lehentasun-ordenaren arabera. Horrela bada, inbertsioak behin betiko sartzeko eskatzeko dokumentazioa aurkezteko epea 2026ko otsailaren 19an amaitu zen.

### 3.2.10. TOKI PROGRAMAZIOA

Toki programazioko jarduerak dira planean edo erreserba-zerrendan sartzeko hautatu eta lehenetsiko diren toki inbertsioen multzoa. Honakoak dira aurreikusitako inbertsio-lerroak:

**Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:** Ur edangarria banatzeko sareak, 30 urte edo gehiago dituztenak, berritzeko inbertsioak, erregulazio biltegietatik hasi eta etxeetako harguneetaraino, bai eta ur beltzen saneamenduko sareak berritzekoak ere, etxeetako harguneetatik araztegiaren aurreko hustubide orokorreraino; ur beltzen eta euri-uren baterako sareen ordez sare bereizleak jartzeko inbertsioak, hirigunearen barruan sortutako euri-uren sareak berritu edo jartzekoak eta hiri drainatze jasangarrirako inbertsioak.

**Zoladura-lanak sareekin:** Eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan bide publikoen zoladura-lanetarako inbertsioak, horietan, aldi berean, aurreko ataleko sareak berritzeko inbertsio finantzagarri bat ere egitea aurreikusten denean.

**Sarerik gabeko zoladura-lanak:** Bide publikoen zoladura--lanak, sarbidea emateko toki erakundeko bizilagunen interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten instalazioei edo bizilagun iraunkorrak dituzten etxebizitzei, horien xede nagusia bada oinezkoen eta/edo zerbitzu publikoen ibilgailuen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea. Horretaz gain, lur publikoei eusteko hormak ere bai, aurreko paragrafoan aipatzen diren bideetako batean daudenean.

**Zeharbideen urbanizazio-lanak:** Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak, udal eskumeneko azpiegiturei dagokienez, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin koordinatuta egin beharrekoak. Ezinbestekoa izango da toki-erakunde eskatzailearen eta herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren arteko lankidetza hitzarmena.

**Udal eta kontzejuetako zuzkidurak:** Honako inbertsioak barne hartzen ditu:

- Erabilera anitzeko zentro, udaletxe edo kontzeju-etxe gisa erabiliko diren eraikinak egiteko obrak, halako instalaziorik ez duten toki-erakundeetan edo horiek birgaitzerik ez dagoenean arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik.
- Eraikinak edo barrutiak birgaitzea edo berritzea, kirol, gizarte, kultura, jolas zentro edo erabilera anitzeko zentro gisa nahiz hilerri, udaletxe, kontzeju-etxe gisa erabiltzeko eta alokatzeko etxebizitzak egiteko, inbertsioaren helburu nagusia hauetako bat edo batzuk direnean: egokitzapen funtzionala; eraikuntza-araudiari egokitzea; inguratzaileak, energia-efizientzia eta uraren erabilera hobetzea, eta amiantoa kentzea.

### 3.2.11. TOKI PROGRAMAZIOKO INBERTSIOAK SARTZEKO, HAUTATZEKO ETA LEHENESTEKO PROZEDURA

Toki programazioan obrak sartzeko prozedura beste planen antzera egituratzen da. Behin-behineko eta behin betiko sartzeak daude, sartu gabeko obren baimentzea aurreikusten da eta zuzkidura bat erreserbatzen da larrialdiko jarduketetarako. Aurreratu egiten da inbertsioak hasteko baimena bai eta ekarpenen ordainketa ere.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak emaniko 570E/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren lehenik, toki programazioko inbertsio lerroen arteko zenbatekoen hasierako banaketa, bigarrenik, toki erakunde bakoitzeko ekarpen mugen eta kostu unitarioen eguneraketa, hiruga-

rrenik, hautatzeko eta lehenesteko baldintzak eta, laugarrenik, Toki Inbertsioen Planean sartzeko eskabideetarako dokumentazio ereduak, **2026-2028 plangintzaldirako.**

570E/2024 ebazpenak, 2026-2028 plangintzaldirako zenbatekoen **hasierako banaketa** onetsi zuen, 2025eko 13.947.088 euroko zuzkidura estimatutik abiatuta. Gainera, gehieneko **kostu unitarioen eguneraketa** onetsi zen, zoladurako metro koadroetarako, euste hormen metro linealetarako eta barandaren metro linealetarako. Bestalde, Mankomunitate bakoitzaren **gehieneko ekarpenaren mugak eguneratu ziren** hornidura-sare, saneamendu-sare eta euri uren sareetako inbertsioetarako, bai eta toki-erakunde bakoitzaren gehieneko ekarpenaren mugak ere sare gabeko zoladuretarako, zeharbideak urbanizatzeko eta udaleko nahiz kontzejuko zuzkiduretako inbertsioetarako, honako honen arabera:

| ERAKUNDE BAKOITZEKO GEHIENEKO EKARPENA HORNIDURAKO, SANEAMENDUKO ETA EURI-URETAKO SAREEN LANETAN | |
|---|---|
| **POPULAZIO TARTEA** | **MANKOMUNITATEAK** |
| 1.000 biztanle bitarte | 460.000,00 |
| 1.001 eta 7.000 biztanle artean | 805.000,00 |
| 7.001 eta 35.000 biztanle artean | 1.035.000,00 |
| 35.001 eta 100.000 biztanle artean | 1.380.000,00 |
| 100.000 biztanle baino gehiago | 1.725.000,00 |
| | **MANK. GABEKO ERAKUNDEA*** |
| 1.000 biztanle bitarte | 200.000,00 |
| 1.001 eta 5.000 biztanle artean | 350.000,00 |
| 5.001 eta 10.000 biztanle artean | 500.000,00 |
| 10.001 eta 25.000 biztanle artean | 600.000,00 |
| 25.000 biztanle baino gehiago | 800.000,00 |

(*) mantendu egin dira 2023-2025 aldiarekin erkaturik

| ERAKUNDE BAKOITZEKO GEHIENEKO DIRU-EKARPENA | |
|---|---|
| SARERIK GABEKO ZOLADURA-LANAK | 180.000,00 |
| ZEHARBIDEEN URBANIZAZIO-LANAK | 680.000,00 |
| UDAL ETA KONTZEJUETAKO ZUZKIDURAK | 180.000,00 |
| | 70.000,00 (Etxebizitzak birgaitu edo erreformatzeko) |

Azkenik, inbertsioak hautatzeko eta lehenesteko baldintzak eta aurkeztu beharreko agirien ereduak jasotzen dituzten **eranskinak onetsi ziren**.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta eta ondoren aipatzen diren ebazpenen bidez, programa bakoitzean behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak onetsi dira:

- 544E/2025 EBAZPENA, zeinaren bidez onesten baitira “Udal eta kontzejuetako zuzkidurak” inbertsio-lerroaren barruan 2026-2028 plangintza aldiari dagozkion behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak.
(10. NAO - 2026ko urtarrilak 15)
- 559E/2025 EBAZPENA, zeinaren bidez onesten baitira “Sarerik gabeko zoladura-lanak” inbertsio lerroaren barruan 2026-2028 plangintza aldiari dagozkion behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak.
(26. NAO - 2026ko otsailak 5)
- 559E/2025 EBAZPENA, zeinaren bidez onesten baitira “Sarerik gabeko zoladura-lanak” inbertsio lerroaren barruan 2026-2028 plangintza aldiari dagozkion behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak.
(28. NAO - 2026ko otsailak 9)
- 5E/2026 EBAZPENA, zeinaren bidez onesten baitira “Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak” eta “Zoladura-lanak sareekin” inbertsio lerroen barruan 2026-2028 plangintza aldiari dagozkion behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak.
(45. NAO - 2026ko martxoak 3)

Ebazpen guztiek behin-behinean sartutako inbertsioak, erreserban gelditu direnak eta onartu ezin direnak barne hartzen dituzte. Behin-behineko onartze horren ondoren, erakundeak inbertsioak gauzatzen hasi ahalko dira. Aurreko planetan ordea, inbertsioak egiten hasteko behin betiko onarpenaren zain egon behar zen.

Behin-behineko onarpena eman ondoren, erakundeek lau hilabete dituzte dokumentazio guztia aurkezteko, gauzatze-proiektua barne, eta Departamentuak behin betiko onarpena eman behar du, gehienez ere, sei hilabeteko epean. Behin-behineko onarpenean aurreikusitako inbertsioaren zenbatekoa % 10 handitu ahalko da. Behin betiko onarpenean, inbertsioa justifikatu beharko den aurrekontu-ekitaldia zehaztuko da, zeina bat etorriko baita gastua aurreikusita dagoen azken ekitaldiarekin, gehienez ere dagokion ekitaldiaren azaroaren 20a.

### 3.2.12. EKARPEN EKONOMIKOAREN ORDAINKETA

Oro har, ordainketa **bi zatitan** eginen da:

- Lehenengo zatian, gehieneko ekarpen ekonomikoaren % 65 ordainduko da ofizioz, 2 hilabeteko epean inbertsioa behin betiko sartzeari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, inbertsioa edo haren zati bat ekitaldi horretarako konprometiturik badago. Gastua etorkizuneko ekitaldietarako konprometituta baldin badago, gastua konprometituta dagoen lehen ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen eginen da ordainketa.
- Bigarren zatia, ekarpenaren gainerakoa, inbertsioa justifikatu ondoren ordainduko da. Obra bukaerako ordainketa eskatu eta inbertsioa justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea azaroaren 20an bukatuko da, inbertsioa behin betiko sartzeko ebazpenean ezartzen den ekitaldikoan, eta ekitaldi hori izanen da gastua konprometituta dagoen azkena.

### 3.2.13. DETERMINAZIO LIBREKO PROGRAMA

Determinazio Libreko atalak **toki-erakunde bakoitzak erabakitzen dituen inbertsioak finantzatzeko** erabili beharreko ekarpena ezartzen du eta ez da justifikatu beharrik eta ez du erabiltzeko denbora-mugarik ere. Funtsa helburu horretarako erabiltzen dela kontrolatzea erakundearen barne kontrolerako organoei dagokie soilik. Horregatik, funts hori aplikatzeko **malgutasun osoa** dago eta ekitaldi batean erabiltzen ez bada, gerakin gisa geldituko da hurrengo ekitaldietan erabili ahal izateko.

Toki-erakunde bakoitzari dagokion Determinazio Libreko ekarpenen zenbatekoa biztanle kopuruaren arabera zehaztuko da; populazio tarteen arabera erakunde bakoitzak **zenbateko finko bat** jasoko du. Gainera, udalerri konposatuek eta biztanlegune atxikiak dituzten udalerri bakunek **zenbateko gehigarri bat** ja-

soko dute, populazioaren sakabanaketa geografikoan oinarrituta. Era berean, kontzejuentzako ekarpen zuzen bat egongo da. Kontzejuei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerriari dagokion zenbatekoaren % 50 biderkatuko da udalerriko biztanleria osoaren gainean kontzejuko bizilagunen kopuruak duen proportzioarekin. Zifra horretatik % 50 kontzeju bakoitzari zati berdinetan banatzen zaie eta gainontzeko % 50a kontzeju bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera.

Erakunde bakoitzarentzako zenbateko finkoak handiagoak izan ziren 2022an, 15 milioi banatu zirelako eta aurreko urteetan berriz, 9 milioi. Udalerri konposatuei gehitzen zaien zenbatekoa aldagarria da sakabanaketa indizearen aplikazioaren mende dagoelako tokian toki ezberdina izanik. Kontzejuei 3.000 euroko gutxieneko zenbatekoa bermatzen zaie 2022an eta 1.800 euro hurrengo urteetan. 2023rako eta hurrengo urteetarako zenbatekoak KPIaren arabera eguneratuko dira eta, hortaz, 2026rako honela geldituko dira:

| DETERMINAZIO LIBREKO EKARPENA SAKABANAKETA APLIKATU GABE | | |
|---|---|---|
| POPULAZIO TARTEA | 2025. URTEA | 2026. URTEA |
| 99, gehienez | 11.527,23 | 11.803,88 |
| 100 eta 499 artean | 20.130,88 | 20.614,03 |
| 500 eta 999 artean | 34.498,16 | 35.326,11 |
| 1.000 eta 1.999 artean | 40.261,78 | 41.228,06 |
| 2.000 eta 2.999 artean | 46.025,39 | 47.130,00 |
| 3.000 eta 4.999 artean | 51.789,01 | 53.031,94 |
| 5.000 eta 9.999 artean | 60.392,66 | 61.842,09 |
| 10.000 eta 29.999 artean | 76.263,49 | 78.093,81 |
| 30.000 eta 199.999 artean | 109.341,63 | 111.965,83 |
| 199.999 baino gehiago | 186.607,46 | 191.086,04 |
| Kontzejuentzako gutxieneko zenbatekoa | 1.800,00 | 1.800,00 |

## 4. TRANSFERENTZIEN EDO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAK

### 4.1. IZAERA FINALISTA DUTEN FORU GOBERNUKO DIRULAGUNTZAK

Toki Ogasunen Funtsetik at dauden tokiko sektoreari zuzenduriko transferentziak aztertuz, Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuan agertzen diren transferentziak osotara % 9,29 handitu dira 2025eko behin betiko aurrekontuarekin erkaturik.  Zehatzago adierazita, transferentzia arruntak % 7,74 handitu dira eta kapital transferentziek aldiz, % 12,82 egin dute gora. Egiazki, transferentzien igoera % 5,80koa izan da berreskurapenerako funtsak kontuan hartu gabe. Kapital transferentzien igoerari dagokionez berriz, batez ere, igoera autonomia erkidegotik kudeatzen diren berreskurapenerako funtsen eraginagatik etorri da. Izan ere, aurretik aipatu denez, funts horiek % 12,82 igo dira deialdi berri bat soilik aurreikusten bada ere.

Adierazi behar da halaber, toki-erakundeei zuzendutako dirulaguntza deialdiak azkartu beharko liratekeela atzerapen handiarekin egiten direlako, gauzatzeko eta gastuak justifikatzeko epe gutxirekin, eta horrek eraginkortasun eta gauzatze-gaitasun handia kentzen dielako dirulaguntzoi.

Txosten honetako **ERANSKINEAN** diru-partidak zehaztu dira. Aurrekontuak Parlamentuan tramitatzean sartutako partida izendunak urdinez adierazi dira eta urdinez azpimarraturik berriz, parlamentuan tramitatzean aldatu ziren partidak. Gorriz adierazi dira ordea, Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko Funtsek finantzatzen dituztenak. Era berean, adierazi behar da aurrekontuak Parlamentuan tramitatzean bi partida kendu direla, honako hauek zehazki:

- 320000 32000 7609 261400 - Toki-erakundeentzako dirulaguntzak etxebizitza erosteko eta birgaitzeko. 600.000 euroko zuzkidura zuen.
- 320000 32000 7609 261402 - Udalerrientzako dirulaguntzak etxebizitza-parkea hobetzeko. 600.000 euroko zuzkidura zuen.

### 4.2. TOKI-ERAKUNDEEN PARTE-HARTZEA EUROPAKO FUNTSETAN

2020ko maiatzean, Europar Batasunak finantza-tresna multzo bat ezarri zuen ekonomia suspertzeko. Tresnarik garrantzitsuena **Next Generation** (aurrerantzean NG) izeneko funtsa da, Europar Batasunaren aurrekontuaren barruan dagoena eta **2021-2027 aldirako** 750.000 milioi euro dituena. Funts hori oso tresna indartsua da Batasunaren trantsizio ekologikorako eta ekonomia suspertzeko, eta helburu horiek estuki loturik daude; izan ere, hazkunde ekonomiko sendoa proposatzeko, ezinbestekoa da ingurumen aldetik jasangarria izatea. Hala ere, tresna konplexua da administrazioaren ikuspuntutik eta bai Europar Batasunaren estatu kideek bai eskualdeek eta toki-erakundeek ere NG Funtsak finantzatuko dituen proiektuak finkatzeko esparrua ezarri behar dute.

NG Funtsak ministerioek kudeatzen dituzten estatu mailako dirulaguntza deialdien bidez artikulatzen dira edo funts erregionalizatuen bidez. Funts horiek autonomia-erkidegoei helarazten zaizkie, zuzeneko gastuaren bidez edo toki-erakundeei besteak beste zuzendutako dirulaguntza deialdi berrien bidez kudeatu ditzaten. Horregatik, ez dago patroi argi bat eta etengabe kontsultatu behar da uneoro zabalik dauden deialdien berri izateko.

Egun, deialdi gutxi gelditzen dira argitaratu gabe 2021-2027 aldiko amaieran gaudelako. Deialdiak ebatziz doazen heinean, toki-erakunde onuradunek Plana kudeatzeko ezarritako prozedurak bete behar dituzte eta, zehazki, **“Iruzurraren aurkako plana”** deiturikoa onetsi behar da eta helburuen betekizunari eta gauzatutako gastuen justifikazioari dagozkion informazioa bete behar da Gobernu Zentralak horretarako gaitutako **CoFFEE** plataforman. Horretarako, eta **banakako laguntza** jaso ahal izateko, toki-erakundeak **TRAGSATEC** enpresak kudeaturiko zerbitzuari atxiki ahal zaizkio, atxikitze-protokoloa honako helbide honetara igorrita: apoyo.hacienda.navarra@tragsa.es.

TRAGSATEC enpresaren laguntza edukitzeaz gain, informazioa kargatzeko eta CoFFEE plataformarekin loturiko edozein zalantza izanez gero, Erabiltzaileen Arretarako Zentroa (CAU) dago. Bertan, eskuliburuak, gidak, araudia eta maiz egindako galderak aurki daitezke eta kontsultak egiteko aukera dago.

## 5. TOKI-ERAKUNDEEN ZORPETZEARI JARRITAKO MUGAK

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak  (4. eta 10. atalek) Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 125etik 131ra bitarteko arti-

kuluak aldatzen ditu Nafarroako toki-erakundeen epe luzerako zorpetzea arautzeko. Aurreko araudia 2011n baliogabetu zuten, Konstituzio Auzitegiaren epai baten bidez eta, orain arte, araubide erkidearen araudia aplikatzen zen. Hortik aurrera, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak aurreikusitakoa indarrean dago, orain arte aplikatzen zenaren eduki oso antzekoarekin. Hortaz, zorpetzearen baldintzak eta mugak ez dira aldatu baina bai ordea araudiari dagozkion erreferentziak.

**Foru araudiak** finantza zuhurtasunaren printzipioa bete beharra ezartzen du zeinak kreditu-eragiketak ituntzeko gehieneko baldintzak mugatzen baititu. Araudiak, halaber, araubide erkidearen baldintza baliokideak direnak ezartzen ditu.

Aurreko ekitaldian likidatutako baliabideak erreferentzia gisa hartzen dituzten mugak aplikatu ahal izateko, aurreko ekitaldira jotzeko aukera ematen da, oraindik aurrekontua likidatu gabe dagoenean. Hori epe luzeko nahiz laburreko eragiketetan aplikatuko da.

- Toki-erakundeen **epe luzeko zorpetzeak**, xedea edozein dela ere, honako baldintzak bete beharko ditu:
- Zor biziaren bolumena aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten % 110 baino txikiagoa izatea, egonkortutako zenbatekoari dagokionez.
- Toki Administrazioaren Departamentuaren baimena, zor bizia azken ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten % 75 baino gehiagokoa bada. Baimena beharko da halaber, kanpoan ituntzen diren eragiketetarako edo zor publikoa jaulkitzeko.
- Halaber, finantza-tutoretzako organoaren baimena beharko da inbertsioak aldi baterako finantzatzen dituzten eta diru-sarrera arrunten % 35 gainditzen duten epe laburreko eragiketetarako.
- Baimena behar den kasuetan, baimen hori gehienez ere bi hilabeteko epean jakinaraziko da, eta, baimenik ez dagoen bitartean, eragiketari lotutako gastu-konpromisoek ezin izango dute irmotasuna hartu.
- Aurreko ekitaldiaren likidazioan aurrezki positibo garbia edukitzea. Ulertuko da aurrezki garbia dela diru-sarrera arruntengatik likidatutako eskubideen eta gastuen egoera-orrietako lehen, bigarren eta laugarren kapituluetan aitortutako betebeharren arteko diferentzia, zenbateko hau kenduta: urteko amortizazio-kuota teoriko bat, proiektatutako eragiketarena eta ordaintzeko dauden mailegu eta jesapen bereki nahiz hirugarrenei abalatutako bakoitzarena. 130. artikuluak kreditu-eragiketaren urteko kuota teorikoa kalkulatzeko modua zehazten du bai eta aurrezki garbian kontuan hartu beharreko diru-sarrerak.
- Eragiketek finantza zuhurtasunaren printzipioa betetzea. Printzipio horrek kreditu-eragiketak ituntzeko interes-baldintzak eta epea ezartzen ditu bai eta abalak emateko mugak ere.
- Toki Administrazioaren Departamentuari erreferentziazko magnitudeak kalkulatzeko kontuan hartuko den aurrekontuaren likidazioa igorri izana.
- Zor-eragiketa bat, bere modalitate guztietan, izenpetu, kitatu edo aldatu eta ondoko hilabeteko gehieneko epean, toki-erakundeak eragiketaren baldintzak eta horren amortizazio taula jakinaraziko dizkio finantza tutoretzako organoari.
- Toki-erakundeen menpeko erakundeek kreditu eragiketak hitzartzeko, korporazioaren osoko bilkuraren baimena beharko dute.

Era berean, **birfinantzaketa-eragiketak** egin ahalko dira Toki Ogasunei buruzko Legearen testu bateginaren 49.2. artikuluan (2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan) adierazten den moduan, finantza tutoretzako organoak horretarako baimena eman ondoren eta finantza zuhurtasunaren printzipioa betez (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen ehunda bederatzigarren xedapen gehigarria).

## 6. AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO LEGEA

### 6.1. AURREKONTUAREN EGONKORTASUNARI ETA FINANTZAREN JASANGARRITASUNARI BURUZKO LEGE ORGANIKOA APLIKATZEA

2020tik 2023ra bitartean arau fiskalak eten egin ziren COVID-19aren pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondorioak leuntzeko. **2024an** ordea, arau fiskalak **berriro ere indarrean** jarri ziren 2023ko martxoaren 8an Europako Batzordeak Kontseiluari adierazi baitzion ken zezala 2020an arau fiskalak eteteko ezarritako babes klausula.

Horrenbestez, 2025eko azaroan, Ministroen Kontseiluak aurrekontu egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak adostu zituen toki azpisektorearentzat 2026-2028 hiruhilekorako, bai eta 2026ko Estatuko Aurrekontuaren gastu-muga ez finantzarioa adostu ere. Azken horrek administrazioen gastu konputagarriaren aldaketa mugatzen du. Diputatuen Kongresuak egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak errefusatu zituen. Egoera horren aurrean, Europako Batzordeak ontzat emaniko 2023-2026 aldiko Egonkortasun Programan jasotzen diren defizitaren eta zorraren helburuak aplikatzen dira.

Horrenbestez, aurrekontu **egonkortasunaren helburuak** lotesleak izango dira honako taula honetan ezarritakoari jarraiki:

| TOKI-ERAKUNDEAK 2024-2026 (KPIaren %) | | |
|---|---|---|
| 2024 | 2025 | 2026 |
| %0,2 | %0,1 | %0,2 |

Egonkortasun Programan jasotako superabit hori, toki azpisektore osoari aplikatuko zaio. Beraz, toki-erakunde bakoitzaren banakako helburua superabitarekin likidatzea da edo gutxienez orekarekin likidatzea (finantzaketa gaitasun edo behar ezarekin).

**Zor publikoaren helburuaren kasuan**, ez dago aldaketarik zorraren mugari dagokionez. Toki-erakundeen zorpetzea, gehienez ere, haien diru-sarrera arrunten % 110ekoa izan ahalko da eta zor komertzialari dagokionez, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatu eta argitaratu beharko da.

**Gastu-arauaren helburuari dagokionez**, toki-erakundeen gastu konputagarriaren aldakuntzak ezingo du Espainiako ekonomiaren KPIaren epe ertainera begirako hazkundearen erreferentzia-tasa gainditu:

| ERREFERENTZIA-TASA 2026-2028 (%) | | |
|---|---|---|
| 2026 | 2027 | 2028 |
| %3,5 | %3,4 | %3,2 |

2026an, % 3,5eko gastu araua aplikatuko zaio 2025eko aurrekontuaren likidazioko gastu konputagarriari.

Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak, NUKFk eta Kontuen Ganberak 2014an eta 2015ean aurrekontu egonkortasunari eta finantza jasangarritasunari buruzko gidaren lehenengo edizioak argitaratu zituzten, Nafarroako toki-erakundeek agiri bat eskura izan zezaten apirilaren 27ko Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa Nafarroako toki esparruan aplikatzerakoan eratorritako kontzeptuen eta oinarrizko eragiketen definizioa, edukia eta interpretazioa errazte aldera. 2025eko abenduan, Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiak gida horren egunerakera argitaratu zuen.

Bertan, adierazitako hiru helburuak (gastu arauarena, zor publikoarena eta aurrekontuaren egonkortasunarena) azaltzen dira definizioekin, aplikazioekin eta kalkuluekin. Horretaz gain, gerta litezkeen arau-hauste moten kausak eta ondorioak zehazten dira baita prebentzioko, zuzentzeko eta hertsatzeko neurriak ere. Azkenik, superabitaren eta aurreikusitakoaren gainetik izandako diru-sarreren jomuga garatzen da, horren inguruko adibideak emanez.

Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 242bis eta 242ter artikuluetan, Nafarroako toki ogasunetan aurrekontuaren egonkortasuna aplikatzeari buruzko zehaztasunak arautzen dira.

Honela laburbildu daitezke arautzen diren berezitasunak:

- Gastu arauan ez da gastu konputagarritzat joko hirigintza kudeaketatik edo bestelakoetatik datozen funts finalisten bidez finantzatutako gastu-zatia.
- Aurrekontu egonkortasunaren helburuaren ez-betetzea gertatzen bada gastuak diruzaintzako gerakinarekin finantzatu direlako edo gastu proiektuak exekutatu direlako urteko finantzaketa-desbideratze negatiboekin, ez da beharrezkoa izanen Ekonomia eta Finantza Plan bat egitea. Horren ordez, kontu-hartzailetzako lanak betetzen dituen organoak osoko bilkurari komunikazio bat igorri beharko dio.
- Gastu araua betetzen ez duten erakundeen kasuan, Ekonomia eta Finantza plana egin ordez, kontu-hartzailetzak komunikazio bat igortzen ahalko dio osoko bilkurari, baldin eta ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa egiten bada, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina eta aurrezki garbi positiboa izanda, eta betetzen badira hurrengo ekitaldirako defizitaren eta zor publikoaren helburuak.

Azkenik, eta berritasun gisa, 2024ko superabitaren jomuga malgutu da, hala onetsi baita toki-erakundeen eta autonomia-erkidegoen inbertsio-jarduerari laguntzeko presako neurriak hartzen dituen abenduaren 2ko 15/2025 Errege Lege Dekretuaren bidez, Diputatuen Kongresuak 2025eko abenduaren 11n baliozkotu ondoren. Aipatu errege lege dekretu horren 1. artikuluak luzatu egiten du Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren Seigarren Xedapen Gehigarriaren aplikazioa eta ahalbidetzen du toki-erakundeek 2024an izandako superabita 2025eko, 2026ko eta 2027ko ekitaldietan finantzarioki jasangarriak diren inbertsioak finantzatzeko erabiltzeko. Neurri hori berezia da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 32. artikuluak arautzen baitu, oro har, superabit hori zor publikoa murrizteko erabili behar dela. Superabitaren jomugaren malgutze hori baliatu ahal izateko, toki-erakundeek honako baldintzak bete beharko dituzte aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioan:

- Abenduaren 31n erakundearen zor biziak sarrera arrunten % 110 baino handiagoa ez izatea.
- Finantziazio gaitasuna edukitzea, Nafarroako toki-erakundeetan aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen jasangarritasunari buruzko gidaren III. atalaren arabera kalkulatuz.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina positiboa izatea. Horretarako ez dira kontuan hartuko finantzaketako desbideratze metatu negatiboak; horiek ez baitute gerakina handitzen, araubide erkidearen barruan dauden toki-erakundeei aplikatzen zaien araudiari jarraiki.
- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezingo du gainditu berankortasunari buruzko araudiak aurreikusitako ordaintzeko gehieneko epea.

Finantzarioki jasangarria den inbertsioaren definizioa Toki Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako 2/2024 Errege Dekretuaren xedapen gehigarrietan hamaseigarrenean araututa dago. Toki-erakundeek bete beharreko baldintzez gainera, kontu-hartzailetzako organoak txostena egin beharko du inbertsioaren oroitidazki ekonomikoan jasotzen diren inbertsioaren etorkizunera begirako ondorioen iraunkortasunaren eta oinarriaren gainean ezarritako irizpideak kontuan hartuta. Organoak kontrako txostena egingo balu, Toki Administrazioko eta Despopulazioko Departamentuari igorri beharko dio. Aurrekontuetako likidazioarekin batera txosten bat egin beharko du gainera, finantzarioki jasangarria den inbertsio gisa exekutatu diren inbertsioen zerrenda xehakatua edukiko duena.

Nabarmendu behar da finantzarioki jasangarria den inbertsioaren kontzeptua 2024ko ekitaldiaren superabitaren jomugari loturik dagoela eta inbertsio mota horiek gastu konputagarritik kanpo daudela gastu arauan. Inbertsio mota horiek aurrekontu aldaketen bidez gaitzen dira eta diruzaintzako gerakinarekin finantzatzen. Horregatik, ez dira inbertsio finantzarioki jasangarritzat hartuko ekitaldiaren aurrekontuan hasiera batean aurreikusitakoak.

### 6.2. AURREKONTU EGONKORTASUNA BETETZEARI BURUZKO INFORMAZIOA MINISTERIOARI EMATEKO BETEBEHARRA

HAP/2105/2012 Ministerio Aginduak **betebehar batzuk** ezartzen ditu, **aldizkakoak eta ez aldizkakoak**, **aurrekontu-betearazpenaren inguruko informazioa emateari buruz**, zerga-arauak betetzeko aurreikuspenen berri emateko. 5.000 biztanletik beherako erakundeentzat betebehar ezberdinak ezarri dira.

Nafarroako toki-erakundeek, informazioa Autoriza plataformaren bidez igorri behar dute; besteak beste, ordaintzeko batez besteko epealdiari dagokion informazioa. Horretaz gain, igorriko den informazioa Toki Administrazioaren Departamentuak ezarritako jarraibideei men egin beharko die, hori baita finantza-tutoretzako organoa. Garrantzitsua da aurrekontuei eta haien likidazioari buruzko informazioa Idecal sistemaren bidez bidaltzea. Informazioa emateko betebeharrarekin lotutako esteka guztiak Nafarroako toki-erakundeetan

aurrekontuen egonkortasunari eta finantzen jasangarritasunari buruzko gidaren X. atalean aurki daitezke.

## 7. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOEN ZERBITZUKO LANGILEEI DAGOZKIEN NEURRIAK 2026KO EKITALDIRAKO

### 7.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEEN ORDAINSARIEN EGUNERAKETA

Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Funtzio Publikoaren Estatutuan aurreikusitako funtzionario-araubidea aplikatuko zaien langileen ordainsarien igoera ezartzen dute; hain zuzen ere, Estatuko legeriak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2026rako ezartzen duen gehieneko igoera orokorra. Aurrekontu Orokorrak luzatuak daudenez gero, sektore publikoaren eremuko ordainsarien arloan presako neurriak onesten dituen 14/2025 Errege Lege Dekretuaren bidez % 1,5eko igoera onetsi zen 2025eko abenduaren 2an.

Neurri hori administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako ordainsariak igotzeko urte anitzeko esparrua ezartzen duen "enplegu publikoa eta herritarrentzako zerbitzua hobetzeko esparru-akordioa betez hartu da. Akordio horren arabera, % 11,4ko igoera aurreikusia dago 2025-2028 aldirako. Igoera horretaz gain, abenduaren amaieran aplikaturiko % 2,5eko igoera ere kontuan hartu behar da, zeina 2025a osoari aplikatuko baitzaio atzeraeraginez. Gainera, akordioak % 0,5eko ordainsari-igoera gehigarria eta finkagarria aurreikusten du 2026ko KPIaren aldea % 1,5 edo handiagoa bada. Edonola ere, ordainsari gehigarri hori 2027an ordainduko da 2026ko urtarrilaren 1arekiko atzeraeragineko ondorioekin. Hortaz, 2026ko urtarrilaren 1arekiko atzeraeragineko ondorioekin aplikatu beharreko ordainsari-igoera % 1,5ekoa da 2025eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak oinarri harturik.

Honakoa da 2026rako ordainsarien taula eguneratua:

| MAILA BAKOITZAREN HASIERAKO SOLDATAK 2026RAKO: | |
|---|---|
| MAILA | URTEKO ZENBATEKOA |
| A | 31.622,50 € |
| B | 26.602,94 € |
| C | 22.068,34 € |
| D | 19.219,48 € |
| E | 16.905,84 € |

Lan-kontratuko langileentzat, aurreko paragrafoan adierazitako eguneratze bera aurreikusten da, salbu eta langile horiek beren kontratu-harremana arautzen duten hitzarmen espezifikoak badituzte.

### 7.2. LANGILE PASIBOAK

2026ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 10. artikuluaren arabera, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanen dute Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, baldin indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea badute. Estatuko Aurrekontu Orokorrak luzatuak daudenez gero, igoera pentsioak errebalorizatu eta Gizarte Segurantzako beste neurri premiazko batzuk ezartzen dituen otsailaren 3ko 3/2026 Errege Lege Dekretuan jasota dago. Horren arabera, pentsioek oro har, % 2,7ko igoera izango dute 2026an, 2025eko abenduaren 31n zuten zenbatekoa oinarritzat harturik, horixe izan baita 2025eko abenduaren aurreko hamabi hilabeteetako kontsumoko prezioen indizearen urte arteko aldaketa tasen batez besteko balioa, ehunekoetan eta hamartar batekin adierazita.

Bestalde, 10/2003 Foru Legeak (martxoaren 14ko 32. NAO) zeinak Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorra ezartzen baitu, hamargarren xedapen gehigarrian aurreko ekitaldian sortutako pentsioak ordaintzeko derrama aurreikusten du. Gainera, 2026ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 12. artikuluari jarraiki, "Nafarroako Gobernuak ekarpena eginen du Nafarroako toki-erakundeetako funtzionarioen pentsioak finantzatzeko, Udal Funtzionarioen Montepio orokorrekoak direnen kasuan. Ekarpen hori banatuko da Udal Funtzionarioen Montepio Orokorraren kudeaketagatik 2025eko ekitaldian sortutako kostuen ordainketari dagokionez udal bakoitzari esleitu zaion kuotaren araberako proportzioan".

Banaketa horretatik salbuetsita geratuko dira Iruña, Tutera eta Tafalla udalerriak, Montepio propioa dutelako. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak ekarpenak egingo dizkie hiru udal horiei 2025ean beren Montepio propioak kudeatzetik eratorritako kostuen arabera.

### 7.3. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIO-OINARRIAK ETA -TASAK

Aurreko atal batzuetan adierazi den moduan, 2026an ere Estatuko Aurrekontu Orokorrak luzatuak daude eta otsailaren 3ko 3/2026 Errege Lege Dekretuak 2026rako indarrean mantentzen ditu 2025eko kotizazio-arauak, behar diren egokitzapenak eginez. Zehazki, lanbide-kategoria bakoitzaren gutxieneko kotizazio-oinarriak automatikoki igoko dira lanbide arteko gutxieneko soldataren igoeraren arabera eta gehieneko muga pentsioen errebalorizazioa eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren berariazko arauaren arabera eguneratuko da.

2026ko martxoan, Gizarte Segurantzako informazio-kanal ofizialean argitaraturik jarraitzen du Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrerako 2025eko taula itxiak. Horregatik, 2026rako komeni da gutxieneko oinarrien zifra itxiak tentuz erabiltzea Araubide Orokorraren kotizazioari buruzko urteko arau osoa argitaratzen ez den bitartean. Bai badago baieztatua ordea, 2026rako autonomoetan gehieneko kotizazio oinarriak maila gorenetan 5.101,20 euro direla hilean eta Araubide Orokorreko gutxieneko oinarriak ordainsarien erreferentzia berriaren arabera egokitu behar direla automatikoki.

Belaunaldi arteko ekitate mekanismoari dagokionez, ehuneko 0,90 puntukoa izango da, kontingentzia arrunten kotizazio oinarriari aplikatuko zaiona. Kotizazio-tasa enplegatzailearen eta langilearen artean banatuko den egoeretan, ehuneko 0,75 enplegatzailearen kargura izango da eta ehuneko 0,15 aldiz, langilearen kargura.

Gainera, langileentzat ezarritako gehieneko kotizazio-oinarriaren zenbatekoa gainditzen duten ordainsarien zenbatekoa elkartasun-kotizazio gehigarri baten mende geratuko da, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 19 bis artikuluan eta berrogeita bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera. Kotizazio gehigarri hori ere otsailaren 3ko 3/2026 Errege Lege Dekretuaren bidez eguneratu da.

## 7.4. GUTXIENEKO SOLDATA ETA ONDORIO ASKOTARAKO ERRENTA-ADIERAZLE PUBLIKOA

Gobernuak lanbide arteko gutxieneko soldata igotzea erabaki du 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, otsailaren 18ko 126/2026 Errege Dekretuaren bidez.

### 2026KO LANBIDE ARTEKO GUTXIENEKO SOLDATA

| € -./EGUNA | €-./HILABETEA | € -./URTEA |
|---|---|---|
| 40,70 € | 1.221 € | 17.094 € |

### 2026KO ONDORIO ASKOTARAKO ERRENTA-ADIERAZLE PUBLIKOA

Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoari dagokionez, 2026rako legezko zenbateko berririk onetsi ez denez, egun indarrean dauden zenbateko berberak mantentzen dira:

| EGUNEKO | HILABETEKO | URTEKO 12 PAGA | URTEKO 14 PAGA |
|---|---|---|---|
| 20,00 € | 600,00 € | 7.200,00 € | 8.400,00 € |

## ERANSKINA

### 2026KO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN BARRUAN TOKI-ERAKUNDEEI DAGOZKIEN DIRULAGUNTZEN AURREKONTU-LERROAK

(AURREKONTUAK PARLAMENTUAN TRAMITATZEAN SARTUTAKO PARTIDA IZENDUNAK URDINEZ ADIERAZI DIRA.
URDINEZ AZPIMARRATURIK ADIERAZI DIRA ALDIZ, PARLAMENTUAN TRAMITATZEAN ALDATU ZIREN PARTIDAK ETA GORRIZ ADIERAZI DIRA NEXT GENERATION FUNTSEK FINANTZATZEN DITUZTENAK)

## ERANSKINA: 2026KO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN BARRUAN TOKI-ERAKUNDEEI DAGOZKIEN DIRULAGUNTZEN AURREKONTU-LERROAK

### TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| **0 LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN DEPARTAMENTUA** | **1.249.000** |
| 010 LEHENDAKARITZAKO ETA GOBERNU IREKIKO JARDUERA OROKORRAK | |
| 010005 GOBERNU IREKIKO ZERBITZUA | |
| 010005 01700 4609 924900 Toki-erakundeentzako dirulaguntzak herritarren parte-hartzea sustatzen duten proiektuetarako | 135.000 |
| 010005 01700 4609 924902 (Z) Transferentzia Barañaingo Udalari: Barañaingo Boluntariotzaren Plan Estrategikoa | 15.000 |
| 080 NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA | |
| 080001 GENERO BERDINTASUNAREN ARLOKO JARDUKETAK | |
| 080001 08100 4609 232200 Toki-erakundeentzako transferentziak berdintasun politikak eta zainketen aldeko itunak sustatzeko | 984.000 |
| 080001 08300 4609 232200 Nafarroako toki-erakundeentzako dirulaguntzak LGTBI+ arloa sustatu eta babesteko | 85.000 |
| 080003 LGTBI+ BERDINTASUNAREN ARLOKO JARDUKETAK | |
| 080003 08300 4609 232202 (Z) Hitzarmena Burlatako Udalarekin LGTBI+ eskubideak artearen bidez aldarrikatzeko ekitaldi bat antolatzeko | 30.000 |
| **2 LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA** | **20.829.190** |
| 210 TOKI-SEKTOREKO EKINTZAK ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA | |
| 210001 TOKI SEKTOREARI LAGUNTZEKO JARDUKETAK | |
| 210001 21100 4609 922300 Petilla Aragoiko Udalerako transferentzia tutoretza araubidea dela eta | 10 |
| 210001 21100 4609 942300 Toki-erakundeentzako konpentsazioa toki tributuetako hobariengatik | 1.086.670 |
| 210002 ERRONKA DEMOGRAFIKOA ETA LURRALDE-EGITURAKETA | |
| 210002 21400 4609 922100 Hitzarmena Erroibarko Udalarekin lurraldean biztanle gazteak finkatzeko neurriak ezartzeko (Pirinioetako Plana) | 106.000 |
| 210002 21400 4609 922102 Pirinioetan proiektuak gauzatzeko dirulaguntzak | 190.000 |
| 210002 21400 4609 922104 Hitzarmena Bargotako Udalarekin "Bideak ehuntzen" proiektua gauzatzeko | 200.000 |
| 210002 21400 4609 922107 Hitzarmena Otsagabiako Udaleko Zaraitzu Ibarra adinekoen egoitzaren patronatuarekin etxez etxe janaria garraiatzeko | 21.500 |
| 210002 21400 4609 922108 (Z) Transferentzia Aezkoako Batzarre Nagusiari, Pirinioko kontziliazio zerbitzurako | 60.000 |
| 230 GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAK | |
| 230000 GARRAIO ARLOKO JARDUERA OROKORRAK | |
| 230000 23200 4609 441103 (Z) Hitzarmena Basaburuko Udalarekin. Mugikortasunerako proiektu pilotua, eskatu ahalako garraio-zerbitzua | 15.000 |
| 230001 PLANGINTZA ETA MODERNIZAZIOA | |
| 230001 23100 4609 441100 Iruñerriko garraio publikoari eginiko ekarpena | 18.500.000 |
| 230002 ANTOLAMENDUA, KUDEAKETA ETA MUGIGARRITASUNA | |
| 230002 23200 4609 441100 Dirulaguntza deialdia mugikortasun jasangarriko planak gauzatzeko | 10 |
| 230002 23200 4609 441102 (Z) Toki-erakundeentzako laguntzen deialdia, bizikleta elektriko bidezko garraio pubikoko zerbitzuaren eragiketa-gastuengatik | 500.000 |
| 230002 23200 4609 441104 (Z) Hitzarmena Erriberriko Udalarekin osasun-garraiorako | 10.000 |
| 240 LURRALDE ANTOLAMENDUA | |
| 240000 LURRALDE ANTOLAMENDUA | |
| 240000 24100 4609 261703 Udalerrientzako dirulaguntza Tokiko Hiri Agenda egiteko | 140.000 |

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| **3 ETXEBIZITZAKO, GAZTERIAKO ETA MIGRAZIO POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA** | **1.753.500** |
| 320 ETXEBIZITZA | |
| 320000 LURZORUAREN ETA ETXEBIZITZAREN KUDEAKETA | |
| 320000 32100 4609 261400 Bizitegi Merkatuko Eremu Tentsionatuetako toki-erakundeentzako dirulaguntzak etxebizitza planetarako | 300.000 |
| 340 NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA | |
| 340002 Gazteriarentzako jarduerak sustatzea | |
| 340002 34100 4609 232103 Toki-erakundeek gazteentzako programak egiteko dirulaguntzak | 685.000 |
| 350 MIGRAZIO POLITIKAK | |
| 350001 MIGRATZAILEEI HARRERA ETA AKONPAINAMENDUA EGITEA | |
| 350001 35100 4609 231903 Hitzarmena Fitero eta Cintruenigoko Mankomunitatearekin: emakume eta adin txikiko migratzaileen inklusioa eta parte-hartzea | 81.000 |
| 350002 KULTUREN ARTEKO ELKARBIZITZA HOBETZEA | |
| 350002 35200 4609 231900 Toki-erakundeentzako dirulaguntzak, bizikidetza eta sentsibilizazio proiektuetarako | 180.000 |
| 350002 35200 4609 231902 Toki-erakundeentzako dirulaguntzak, kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazakeriaren kontrako tekniken arloan | 507.500 |
| **4 HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA** | **37.511.000** |
| 410 LANGILERIA ETA AZPIEGITURAK | |
| 410000 PROGRAMAREN JARDUERA OROKORRAK | |
| 410000 41600 4609 322003 Transferentzia Erronkariko, Otsagabiako, Garraldako, Aurizko, Erroko, Auritzberriko eta Luzaideko toki-erakundeei ikastetxe publikoetako funtzionamendu gastuetarako | 150.000 |
| 410000 41600 4609 322004 Transferentziak unibertsitateaz kanpoko etapetako ikasleek espazioak erabiltzeagatik | 1.000.000 |
| 410001 ERAIKUNTZAK ETA EKIPAMENDUA | |
| 410001 41800 4609 325100 (Z) Hitzarmena Eguesibarko Udalarekin, Joakin Lizarraga IPko Irisgarritasun Plan Integralerako | 17.000 |
| 420 HEZKUNTZA JARDUERAK | |
| 420001 ELEANIZTASUNA ETA ARTE IKASKETAK | |
| 420001 42400 4609 322502 Musika eskolentzako dirulaguntza | 3.400.000 |
| 420001 42400 4609 322503 Hitzarmena Tuterako Udalarekin, musikako udal kontserbatorioaren funtzionamendurako | 500.000 |
| 420004 INKLUSIOA, BERDINTASUNA ETA BIZIKIDETZA | |
| 420004 42700 4609 322400 Gizarteratzeko eta hezteko jardueretarako dirulaguntza | 600.000 |
| 420004 42700 4609 322402 Educación 360 grados programa | 700.000 |
| 420007 HAUR ESKOLAK | |
| 420007 42900 4609 322100 Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko | 30.850.000 |
| 430 DIGITALIZAZIOA ETA HEZKUNTZA-ZERBITZUAK | |
| 430005 ZERBITZU OSAGARRIAK | |
| 430005 43500 4609 324100 (Z) Hitzarmena Zizur Nagusiko Udalarekin, Alde Zaharrera eta Ardoira eskola-garraioa jartzeko | 90.000 |
| 430005 43500 4609 324102 Transferentzia 1500 biztanletik beherako udalerriei, eskola jantokietako garraiatu gabeko bazkaltiarrentzat | 204.000 |
| **5 OSASUN DEPARTAMENTUA** | **2.050.315** |
| 520 NAFARROAKO OSASUN PUBLIKOA ETA LAN OSASUNA | |
| 520001 OSASUN KOMUNITARIOAREN SUSTAPENA | |
| 520001 51200 4609 313908 Eder partzuergoarekin hitzarmena adin txikikoen droga-menpekotasunaren prebentzioaren alorrean tokiko proiektuak egiteko | 30.000 |

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| 520001 51200 4609 313909 Osasunaren sustapena. Toki-erakundeak | 905.000 |
| 547 LEHEN MAILAKO ARRETA | |
| 547001 NAFARROAKO IPAR ETA EKIALDEKO OINARRIZKO OSASUN ARRETAKO OSASUN ETXEAK | |
| 547001 52300 4609 312200 Osasun zentroen funtzionamendurako transferentziak | 1.115.315 |
| 7 LANDA GARAPENEKO ETA INGURUMENEKO DEPARTAMENTUA | 2.335.293 |
| 710 NEKAZARITZAREN ETA ABELTZAINTZAREN BABESA ETA HOBETZEA | |
| 710004 EKOIZPENA, OSASUNGINTZA ETA LAGUN EGITEKO ANIMALIAK | |
| 710004 71310 4609 412200 Abere azokak eta lehiaketak | 56.100 |
| 710004 71300 4609 412202 Toki-erakundeentzako laguntzak animalien babesaren alorrean jarduketak egiteko | 293.900 |
| 720 LANDA GARAPENAREN SUSTAPENA | |
| 720003 NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN KALITATEA ETA HORIEN SUSTAPENA | |
| 720003 72200 4609 413100 Toki-erakundeentzako laguntzak, nekazaritzako elikagaiak merkaturatzeko bide laburrak sustatzeko | 87.000 |
| 740 INGURUMENAREN KUDEAKETA | |
| 740001 EKONOMIA ZIRKULARRA ETA BERRIKUNTZA | |
| 740001 74100 4609 456205 Hondakinen Funtsa. Toki-erakundeentzako dirulaguntzak | 1.200.000 |
| 740002 BASO- ETA EHIZA-BALIABIDEAK | |
| 740002 74200 4609 456307 Toki-erakundeentzako laguntzak ehiza-baliabideak kudeatzeko | 90.000 |
| 740002 74200 4609 456308 NPEaren Plan Estrategikoa LGENF 23-27. Mendi-larreak | 222.273 |
| 740002 74200 4609 456309 Toki-erakundeentzako laguntzak habitatak hobetzeko eta ehizaren kalteak prebenitzeko | 20.000 |
| 740003 BIODIBERTSITATEA ETA ARRANTZA KUDEAKETA | |
| 740003 74300 4609 456302 Indemnizazioak toki-erakundeei | 130.000 |
| 740003 74300 4609 456306 Ingurumena Sustatzeko Plana PIMA Aterpe klimatikoak | 10 |
| 740003 74300 4609 456309 Toki-erakundeentzako laguntzak erabilera publikoa zaindu eta kudeatzeko | 180.000 |
| 740003 74300 4609 456310 Hitzarmena Pitillasko udalarekin Pitillasko aintzira kudeatzeko | 16.000 |
| 740004 NAFARROAKO KLIMA-ALDAKETAREN BULEGOA | |
| 740004 74400 4609 456200 Funts Klimatikoa Toki-erakundeentzako dirulaguntzak | 10 |
| 740008 BASOZAINTZA | |
| 740008 74800 4609 456200 (Z) Hitzarmena Eguesibarko Udalarekin: Eliako Natura Ezagutzeko Zentroko edukien programazioa | 40.000 |
| 8 INDUSTRIAKO ETA ENPRESEN TRANTSIZIO EKOLOGIKO ETA DIGITALERAKO DEPARTAMENTUA | 90.000 |
| 830 MERKATARITZAREN ETA KONTSUMOAREN GARAPENA | |
| 830001 MERKATARITZA ANTOLATU ETA SUSTATZEA | |
| 830001 83100 4609 432106 (Z) Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Merkataritzan belaunaldi-berritzea sustatzeko LEKUKO proiektuari jarraipena ematea | 50.000 |
| 830001 83100 4609 432109 (Z) Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Udal Merkatuen Marketin Planerako | 40.000 |
| 9 ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO DEPARTAMENTUA | 39.649.416 |
| 900 ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO ZUZENDARITZA NAGUSIA ETA ZERBITZU OROKORRAK | |
| 900009 910002 SUSTAPEN ETA ERALDAKETA DIGITALA | |
| 900009 90300 4609 233102 Hitzarmena toki-erakundeekin Historia Sozial Bateratua aldatzeko kudeaketa laguntzeko | 60.000 |
| 901 BABES SOZIALAREN ETA GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA: | |
| 901003 OINARRIZKO OSASUN ARRETA ETA GIZARTERATZEA | |

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| 901003 91600 4609 231500 Etxerik gabeko pertsonentzako harrera-zerbitzua eta etxegabeentzako gizarte-laguntzako beste programa batzuk | 700.000 |
| 901003 91600 4609 231502 Oinarrizko Osasun laguntzako gizarte-zerbitzuak | 24.600.000 |
| 901003 91600 4609 231503 Toki-erakundeentzako deialdia etxez etxeko arreta zerbitzua handitzeko planerako | 500.000 |
| 901003 91600 4609 231506 (Z) Hitzarmenak toki-erakundeekin etxegabetasun arloan | 400.000 |
| 901003 91600 4609 231606 Enplegu Sozial Babestua | 8.000.000 |
| 920 PERTSONEN AUTONOMIARAKO ETA GARAPENERAKO NAFARROAKO AGENTZIA | |
| 920004 MENDEKOTASUNERAKO ZERBITZUAK | |
| 920004 93200 4609 231B00 (Z) Hitzarmena Iruñeko Udalarekin: etxean mendekotasun egoeran dauden pertsonei laguntzeko SCIPIO programaren finantzaketa | 120.000 |
| 920004 93200 4609 233100 Hitzarmenak toki-erakundeekin Gizarte Arreta Integratuko Proiekturako | 260.000 |
| 920004 93200 4609 233103 Hitzarmena Iruñeko Udalarekin eztabaida ikuspegiarekin sarean lan egiteko | 130.000 |
| 920005 MENDEKOTASUNERAKO KUDEAKETA ETA BALIABIDEAK | |
| 920005 93100 4609 231B00 Hitzarmena Leitzako Udalarekin Okile zentro okupazionalerako | 36.416 |
| 920005 93100 4609 231B02 Toki-erakundeentzako dirulaguntza autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko programetarako | 200.000 |
| 920005 93100 4609 231B03 (Z) Beteluko Udalarentzako transferentzia, landa-eremuetan bizitoki-guneak kudeatzeko proiektu-piloturako | 100.000 |
| 920005 93100 4609 231B04 (Z) Erroko Udalarentzako transferentzia, landa-eremuetan bizitoki-guneak kudeatzeko proiektu-piloturako | 100.000 |
| 920005 93100 4609 231B05 Hitzarmena Sakanako gizarte zerbitzuen mankomunitateekin Tekno Adina proiekturako | 128.000 |
| 920005 93100 4609 231B06 Hitzarmena Antsoaingo Udalarekin, sukalde komunitariorako eta jatetxe kolektiboko zerbitzua emateko | 150.000 |
| 920005 93100 4609 231B09 Hitzarmena Erromantzatuko Udalari. Nahi ez den bakardadeari laguntza emateko proiektu pilotua | 40.000 |
| 920005 93100 4609 231B11 (Z) Atarrabiako Udalarentzako transferentzia. Atarrabiako eguneko zentrorako proiektua idaztea | 15.000 |
| 920006 FAMILIEI ZUZENDUTAKO POLITIKEN ALORREKO JARDUKETAK | |
| 920006 93300 4609 231500 Toki-erakundeentzako dirulaguntza kontziliazio programetarako | 250.000 |
| 920008 HAURRAK ETA NERABEAK BABESTEAREN ETA ARTATZEAREN ARLOKO JARDUKETAK | |
| 920008 93300 4609 231700 Toki-erakundeentzako dirulaguntza haurrentzako eta nerabeentzako prebentzio programa komunitarioetarako | 350.000 |
| 920008 93300 4609 231703 (Z) Hitzarmena Tafallako Udalarekin, haur eta nerabeekin prebentzio komunitarioko programa egiteko | 50.000 |
| 920008 93300 4609 231705 (Z) Hitzarmena Cintruénigo eta Fiteroko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateekin, haur eta nerabeekin prebentzio komunitarioko programa egiteko | 50.000 |
| 920008 93300 4609 231706 (Z) Hitzarmena Zangozako Eskualdeko Mankomunitatearekin, haur eta nerabeekin prebentzio komunitarioko programa egiteko | 50.000 |
| 950 ENPLEGUAREN SUSTAPENA, PRESTAKUNTZA ETA BITARTEKARITZA | |
| 950001 ENPLEGURAKO BITARTEKARITZA ETA LAGUNTZAK | |
| 950001 96100 4609 241100 Konferentzia Sektoriala. Toki-erakundeek egindako kontratazioetarako laguntzak | 3.000.000 |
| 950002 ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA PROFESIONALA | |
| 950001 96100 4609 241100 Konferentzia Sektoriala. Udalentzako transferentziak prestakuntzako eta enpleguko programa mistoetarako | 360.000 |

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| **A KULTURA, KIROL ETA TURISMO DEPARTAMENTUA** | **2.804.220** |
| A20 KULTUR-ONDAREA ETA KULTUR SUSTAPENA | |
| A20001 ONDARE HISTORIKOA | |
| A20001 A2100 4609 337100 Toki-erakundeentzako laguntzak ondarearen arloko esku-hartzeetarako | 120.000 |
| A20002 KULTUR EKINTZA | |
| A20002 A2500 4609 334100 Laguntzak udaletan kultur ekintzak egiteko | 1.350.000 |
| A20002 A2500 4609 334102 Dirulaguntzak Nafarroako Antzoki Sarea elkarteari | 300.000 |
| A20002 A2500 4609 334105 Dirulaguntza EPEL Tudela-Cultura erakundeari Ópera Prima zinema jaialdirako | 20.000 |
| A20002 A2500 4609 334106 GENERAZINEMA: Toki-erakundeentzako dirulaguntzak zinema aretoetarako | 10 |
| A20002 A2500 4609 334109 (Z) Hitzarmena Aezkoako Batzarrarekin, Kultur Ola Etxeko funtzionamendu eta langileria gastuetarako | 40.000 |
| A20003 MUSEOAK | |
| A20003 A2300 4609 333100 Hitzarmena Gustavo de Maeztu museoarekin. Funtzionamendu eta jarduera gastuak | 30.000 |
| A20003 A2300 4609 333102 Hitzarmena arte modernoko Muñoz Sola museoarekin. Funtzionamendu eta jarduera gastuak | 30.000 |
| A30 TURISMOAREN MARKETINA ETA GARAPENA | |
| A30001 TURISMOAREN ORDENAMENDUA, KUDEAKETA ETA KALITATEA | |
| A30001 A3100 4609 432100 Turismo arloko dirulaguntzak toki-erakunde eta partzuergoentzat | 200.000 |
| A30002 TURISMO ARLOKO MARKETINA ETA PRODUKTUA | |
| A30002 A3200 4609 432100 (Z) Hitzarmena Iruñeko Udalarekin, Pamplona Convention Bureauren garapenerako | 95.010 |
| A30004 TURISMOAREN LURRALDE GARAPEN JASANGARRIA | |
| A30004 A3400 4609 432103 (Z) Hitzarmena Estellerriko Turismo Partzuergoarekin | 20.000 |
| A50 KIROLAREN ETA ARIKETA FISIKOAREN SUSTAPENA | |
| A50000 KIROLAREN ETA JARDUERA FISIKOAREN INSTITUTUKO ZUZENDARITZA, ZERBITZU OROKORRAK ETA AZPIEGITURAK | |
| A50000 A5000 4609 336100 Tuterako Udalari transferitutako instalazioak | 24.000 |
| A50000 A5000 4609 336102 Toki-erakundeentzako dirulaguntza, instalazioen planak egiteko | 100 |
| A50002 KIROLAREN ETA ARIKETA FISIKOAREN SUSTAPENA | |
| A50002 A5100 4609 336100 Toki-erakundeen kirol-jarduaeretarako laguntzak | 320.000 |
| A50002 A5100 4609 336102 Toki-erakundeentzako dirulaguntzak ariketa fisikoa eta kirola preskribatzeko | 225.000 |
| A50003 ARRETA ENTITATEEI ETA KIROL ERRENDIMENDUARI | |
| A50003 A5200 4609 336100 Toki-erakundeentzako eta mankomunitateentzako dirulaguntza Nafarroako Kirol Kudeaketa Aurreraturako GARDENA programari buruzko prestakuntzarako | 100 |
| A50003 A5200 4609 336102 (Z) Transferentzia Iruñeko Udalari. 2026ko Euskal Herriko Itzulirako | 30.000 |
| **B MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO EKINTZAKO ETA EUSKARAKO DEPARTAMENTUA** | **1.199.500** |
| B20 MEMORIA ETA BIZIKIDETZA | |
| B20002 ELKARBIZITZAREN, BIKTIMEN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALORREKO JARDUKETAK | |
| B20002 B2100 4609 232503 Toki-erakundeentzako dirulaguntzak bakeari, bizikidetzari eta giza eskubideei loturiko jardueretarako | 30.000 |

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| B30 EUSKARABIDEA | |
| B30002 EUSKARAREN SUSTAPENA ETA PLANGINTZA | |
| B30002 B3200 4609 334100 Udal esparruan euskara garatzeko laguntzen programa | 1.050.000 |
| B30002 B3200 4609 334102 (Z) Hitzarmena Erdialdea toki ekintzarako taldearekin, euskara sustatzeko jarduketak egin eta arloko eragilea kontratatzeko | 50.000 |
| B30002 B3200 4609 334103 (Z) Hitzarmena Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitatearekin familientzako kanpainak aztertzeko | 5.500 |
| B30002 B3200 4609 334104 (Z) Hitzarmena Lesakako Andra Mari Egoitza erakunde autonomoarekin. Hizkuntza Plana prestatu eta ezartzea | 4.000 |
| B50 KANPO EKINTZA | |
| B50002 ESKUALDEEN ARTEKO ETA MUGAZ GAINDIKO KOOPERAZIOA | |
| B50002 B5100 4609 144100 Toki-erakundeentzako laguntzak, mugaz gaindiko lankidetza jarduerak sustatzeko | 30.000 |
| B50002 B5100 4609 144102 (Z) Transferentzia Baztango Udalari. Euskal Monetarako | 30.000 |
| **F BARNEKO FUNTZIO PUBLIKOKO ETA JUSTIZIAKO DEPARTAMENTUA** | **22.035.510** |
| F20 JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA | |
| F20001 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUA NAFARROAN | |
| F20001 F2300 4609 112100 Udalerrietako Justizia Bulegoetarako dirulaguntzak | 265.000 |
| F30 FUNTZIO PUBLIKOA | |
| F30001 LANGILEEN KUDEAKETA EKONOMIKOA | |
| F30001 F3300 4609 942300 Montepio Orokorretik toki-erakundeei egindako transferentziak | 7.706.587 |
| F30001 F3300 4609 942302 Transferentziak Iruña, Tafalla eta Tuterako udalei | 13.593.413 |
| F31 NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUA | |
| F31 NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUA | |
| F31001 F3600 4609 921300 Toki administraziorako etengabeko prestakuntza planak (estatuko administrazio publikoaren institutua) | 155.500 |
| F43 SUHILTZAILEAK ETA BABES ZIBILA | |
| F43000 PREBENTZIOA, SU-ITZALTZEA ETA SALBAMENDUA | |
| F43000 F4300 4609 134200 Udalentzako dirulaguntzak suhiltzaile boluntarioetarako | 181.000 |
| F43001 BABES ZIBILA | |
| F43001 F4400 4609 134100 Babes zibileko toki-entitate eta erakundeentzako dirulaguntzak | 94.000 |
| F43001 F4400 4609 134102 Babes zibileko seinaleztapena finantzatzea | 10.000 |
| F43001 F4400 4609 134103 Udal jarduketa planak sustatzeko dirulaguntzak | 30.000 |
| F43001 F4400 4609 134104 Larrialdiei, hondamendiei edo ezbeharrei aurre egiteko laguntzak | 10 |
| **GUZTIRA** | **131.506.944** |

## ERANSKINA: 2026KO NAFARROAKO AURREKONTU OROKORREN BARRUAN TOKI-ERAKUNDEEI DAGOZKIEN DIRULAGUNTZEN AURREKONTU-LERROAK

### KAPITAL TRANSFERENTZIAK

| DEPARTAMENTO / PROGRAMA / PROYECTO / PARTIDA 2026 | € |
|---|---|
| 2 LURRALDE KOHESIORAKO DEPARTAMENTUA | 18.937.786 |
| 210 TOKI-SEKTOREKO EKINTZAK ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOA | |
| 210001 TOKI SEKTOREARI LAGUNTZEKO JARDUKETAK | |
| 210001 21300 7609 261631 Transferentzia Alloko Udalari, paper-fabrikara joateko bidea | 2.000.000 |
| 210001 21300 7609 261631 Transferentzia Doneztebeko Udalari, plazako azoka birgaitzeko | 300.000 |
| 210001 21300 7609 261637 Transferentzia Berriozarko Udalari Gipuzkoa etorbidea bere onera ekartzeko. 1. fasea. | 350.000 |
| 210001 21300 7609 261638 Transferentzia Erroko Udalari, Sorogaingo aterpearen eta inguruaren irisgarritasuna hobetzeko eta zenbait elementu egokitzeko | 70.000 |
| 210001 21300 7609 261639 Transferentzia Zangozako Eskualdeko Mankomunitateari Esatik Edateko Ura Tratatzeko Estaziora ura ponpatzeko | 100.000 |
